



SOLDATAK, PENTSIOAK, LANGABEZIA PRESTAZIOAK ETA GIZARTE AURREIKUSPENEKO ERRESKATEAK GIPUZKOAN

2022

AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	2
1.1	Datuen jatorria	2
1.2	Aztertutako kontzeptuak.....	3
1.3	Aztertutako kolektiboak	4
1.4	Aztertutako aldagaiak.....	5
2.	IKUSPEGI OROKORRA	7
3.	SOLDATAK.....	10
3.1.	Soldatak sexuaren arabera.....	14
3.2.	Soldatak nazionalitatearen arabera	17
3.3.	Soldatak adinaren arabera	20
3.4.	Soldatak LGSaren tarteen arabera	21
3.5.	Soldatak ordaintzailearen ikuspegitik.....	22
3.5.1.	Izaera juridikoaren arabera.....	22
3.5.2.	Langile kopuruaren arabera.....	26
3.5.3.	Sektoreen arabera.....	27
4.	PENTSIOAK	32
4.1	Pentsioak sexuaren arabera	33
4.2.	Pentsioak adinaren arabera.....	36
4.3.	Pentsioak Gutxieneko Pentsioaren tarteen arabera	37
5	LANGABEZIA PRESTAZIOAK	38
5.1.	Langabezia prestazioak sexuaren arabera	39
5.2.	Langabezia prestazioak nazionalitatearen arabera.....	41
5.3.	Langabezia prestazioak adinaren arabera	42
5.4.	Langabezia prestazioa LGSren tarteen arabera.....	43
6	GIZARTE AURREIKUSPENEN ERRESKATEAK.....	44
6.1.	Errenta moduan egindako erreskateak	44
6.1.1.	Errenta moduan egindako erreskateak sexuaren arabera..	45
6.1.2.	Errenta moduan egindako erreskateak adinaren arabera .	47
6.1.3.	Errenta moduan egindako erreskateak tarteen arabera.....	48
6.1.4.	Errenta moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak	49
6.2.	Kapital moduan egindako erreskateak	50
6.2.1.	Kapital moduan egindako erreskateak sexuaren arabera..	51
6.2.2.	Kapital moduan egindako erreskateak adinaren arabera..	53
6.2.3.	Kapital moduan egindako erreskateak tarteen arabera.....	54
6.2.4.	Kapital moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak	55
6.3.	Errenta moduan eta kapital moduan egindako erreskateak	57

1. SARRERA

Txosten honen helburua da Gipuzkoako lan-merkatuaren ikuspegi orokor bat ematea, eta aldi berean denboran zehar izan duen bilakaera ikustea.

Gainera, eta beritasun bezala, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitate (BGAE), Pentsio Plan (PP), Mutualitate eta antzeko sistemetatik egindako erreskateen zenbatekoak aztertuko dira.

Azterketa bi alderditik egingo da:

- Soldatak, pentsioak, langabezia-prestazioak eta Gizarte Aurreikuspeneko erreskateak jasotzen dituzten pertsonak aztertuta.
- Soldatak ordaintzen dituzten entitateak aztertuta.

1.1 Datuen jatorria

Aztertzen diren datuak 190 ereduan aitortutakoak dira: Lan etekinen, ekonomi jardueren etekinen eta sarien gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak (urteko laburpena).

Aitorpen hori soldatak, pentsioak, langabezia-prestazioa eta Gizarte Aurreikuspeneko erreskateak ordaintzen dituzten erakunde guztiek aurkezten dute, edozein izanik ere bere nortasuna, bere jarduera, tamaina edo izaera publiko/pribatua.

Aitortzaile bakoitzak errenten hartzaileen zerrenda bat aurkezten du: ordaindutako zenbatekoa, kontzeptua... Zerrenda horietan PFEZri lotutako errentak lortzen dituzten pertsona guztiak agertzen dira, nahiz eta errentak salbuetsiak egon, zenbateko minimora heltzen ez delako atxikipenik ez egin...

Jasotzen diren datuetan agertzen ez direnak etxeetan lan egiten dutenen soldatak dira, eta hau horrela da ordaintzailea ez delako enpresaria eta 190 eredua ez duelako aurkezten.

Beraz, informazioa osoa eta zehatza da. Eta horren bidez, bai Gipuzkoako biztanleek jasotako eta bai Gipuzkoako enpresek sortutako lan errenten kuantifikazioa eta deskribapena lortzen da.

Dena den, bai oro har eta gehienbat batez bestekoak aztertzerakoan, kontuan izan behar da, nahasita agertzen direla urte osoa lan egiten dutenen datuak eta aldi baterako kontratuak dituztenen datuak, lanaldi osoa egiten dutenena eta lanaldi partzialekoak...

1.2 Aztertutako kontzeptuak

- **Laneko errentak**

190 ereduan A, L15, L35 eta L36 gakoekin datozen errentak. (Lanagatik sortutakoan, LET B gakoa eta L27 bertan kontuan izaten dira).

- **Pentsioak**

190 ereduan B gakoa (BGAEetatik, pentsio planetatik eta gainerako aurreikuspen sistematatik jasotako prestazioei dagokien azpigakoa izan ezik), eta L06 eta L07 gakoarekin datozen errentak. Hau da, Gizarte Segurantzatik, haren ordezkotutako entitateetatik eta Klase Pasiboen erregimenetatik jasotako pentsio publikoak.

- **Langabezia prestazioak**

190 ereduan C eta L13 gakoarekin datozen errentak.

- **Gizarte Aurreikuspeneko erreskateak**

190 ereduan B02 eta L18 gakoak (2014tik aurrera B03, B20, B21, B22, B23, B24, B25, B26, B27 eta L18 gakoak) dutenak: Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitate, Pentsio Plan, Mutualitate eta antzeko sistemetatik jasotako erreskateen zenbatekoak.

Hemen bi eratako erreskateak aztertuko dira:

- Errenta moduan jasotakoak.
- Kapital moduan jasotakoak.

Azterketatik kanpo geratzen dira 190 ereduan agertzen diren beste errenta mota batzuk; esaterako, jarduera ekonomikoko etekinak (nekazaritza edo profesionalak), sariak, irudi-eskubideen lagapena, kontseilari eta administraritza dietak.

1.3 Aztertutako kolektiboak

- **Jasotzaileak**

Jasotzailearen ikuspegitik bakarrik kontuan hartzen dira Gipuzkoako Lurralde Historikoan helbideratuak dauden pertsonen datuak, nahiz eta ordainketa beste lurralde batean dagoen ordaintzaile batek egina izan.

190 ereduaren berezitasunetako bat aniztasuna da: gerta daiteke pertsona batek urte batean zehar bi ordaintzaile edo gehiagoren ordainketak jasotzea, edota errenta mota desberdinak jasotzea (laneko errenta eta langabezia prestazioa; laneko errenta eta pentsioa...).

Orduan, hiru kolektibo desberdintzen dira:

1. **Soldatapekoak:** laneko errentak lortzen dituztenak. Zer gertatzen da pertsona batek ordaintzaile bat baino gehiagotik laneko errentak jasotzen dituenean? Kasu horietan, pertsona hori proportzionalki zenbatuko da entitate bakoitzean soldatapeko bezala: entitate bakoitzak ordaindutakoa, zati laneko errenta osoak. Esaterako: pertsona batek 40.000 euro jasotzen ditu urtean: 10.000 euro A enpresatik eta 30.000 euro B enpresatik. Oro har, soldatapeko 1 bezala kontabilizatuko da; baina adibidez jardueraren arabera sailkatzerakoan A enpresan 0,25 soldatapeko bezala hartuko da ($10.000/40.000$), eta B enpresan 0,75 bezala ($30.000 / 40.000$).
2. **Langabetuak:** langabezia-prestazioak jasotzen dituztenak.
3. **Pentsiodunak:** pentsioak jasotzen dituztenak, B02 eta L18 gakoak errentak jasotzen dituztenak izan ezik (2014tik aurrera B03, B20, B21, B22, B23, B24, B25, B26, B27 eta L18 gakoak).

- **Ordaintzaileak**

Laneko errentei dagokionez, azterketa beste ikuspegi batetik ere egiten da: ordaintzailearen ikuspegitik. Kasu horretan kontuan hartzen dira Gipuzkoan lan-zentroa duten ordaintzaileek ordaintzen dituzten soldata guztiak, nahiz eta jasotzaileak beste lurralde batean helbideratuak egon.

1.4 Aztertutako aldagaiak

Txostenean zehar aztertuko diren aldagaiak honako hauek dira:

- Jasotzaile kopurua
- Errentak guztira
- Batez besteko errenta
- Ordaintzaile kopurua

Sailkapenak

Datuak azaltzerakoan zenbait sailkapen erabiliko dira:

- Jasotzailearen adina
- Jasotzailearen sexua
- Jasotzailearen nazionalitatea
- Errentaren tartea
- Ordaintzailearen jarduera sektorea
- Ordaintzailearen izaera juridikoa
- Ordaintzailearen tamaina (langile kopuruaren arabera)



			Aldagaiak	Sailkapenak
KOLEKTIBOAK	ENPLEGUA	JASOTZAILEAK	Soldatapeko kopurua Soldatak guztira Batez besteko soldata	Adina Sexua Errenta tarte Nazionalitatea Udala Eskualdea
		ORDAINTZAILEAK	Ordaintzaile kopurua Jasotzaile kopurua Soldatak guztira Batez besteko soldata	Izaera juridikoa Jarduera sektorea Tamaina
	LANGABEZIA-PRESTAZIOA		Langabetu kopurua Prestazioaren batez bestekoa Prestazioa guztira	Sexua Adina Prestazioaren tarte Nazionalitatea Eskualdea
		PENTSIOAK	Pentsiodun kopurua Pentsioaren batez bestekoa Pentsioa guztira	Sexua Adina Pentsioaren tarte Nazionalitatea Eskualdea
		BGAE - PP – MUTUALITATE ETA ANTZEKO SISTEMEN ERRESKATEAK: ERRENTA MODUAN ETA KAPITAL MODUAN	Pertsona kopurua Erreskateen zenbatekoa Erreskateen batez bestekoa	Sexua Adina Erreskatearen tarte Eskualdea

2. IKUSPEGI OROKORRA


2022. urtean 517.684 gipuzkoarrek jaso dituzte soldatak, pentsioak edota langabezia prestazioak. Guztira jasotako zenbatekoa 13.614 milioi euro dira, hau da, 26.298 euro batez beste.

- Taularen lehenengo zutabean 2022an zehar soldatak bakarrik jaso dituztenak azaltzen dira (281.821 pertsona; %54,4).
- Pentsioak bakarrik (2. zutabea) 172.933 pertsonak jaso dituzte, guztien %33,4.
- 3. zutabean langabezi prestazioak bakarrik jaso dituztenak aztertzen dira: 9.570 pertsonak (guztien %1,8).
- Lana egiteagatik soldata eta sistema publikoko pentsioa 14.228 pertsonak (guztien %2,7) jaso dute (4. zutabea).
- 5. zutabean laneko soldata eta langabeziako prestazioa jaso dituztenak daude: 37.029 pertsona (guztien %7,2).
- Pentsioa eta langabezia prestazioa 1.197 pertsonak jaso dute (6. zutabea).
- Eta hiru etekin motak (lana, pentsioa eta langabezia prestazioa) 906 pertsonak jaso dute (7. zutabea).
- INEMek ordaindutako langabezia prestazioak 171.167.084 eurokoak dira, eta 48.250 pertsonen dagokie.

Taula 1. 2022ko datuen ikuspegi orokorra

		Soldatapekoak (1)	Pentsiodunak (2)	Langabetuak (3)	Soldatapekoak eta pentsiodunak (4)	Soldatapekoak eta langabetuak (5)	Pentsiodunak eta langabetuak (6)	Soldatapekoak, pentsiodunak eta langabetuak (7)	GUZTIRA
SOLDATAK	Pertsonak	281.821			14.228	37.029		906	333.984
	Zenbatekoa guztira (€)	8.534.827.571			267.240.643	640.697.031		11.445.907	9.454.211.153
	Batez bestekoa (€)	30.285			18.783	17.303		12.633	28.307
PENTSIOAK	Pertsonak		172.933		14.228		1.197	906	189.264
	Zenbatekoa guztira (€)		3.695.853.693		270.058.223		11.399.609	10.017.395	3.987.328.920
	Batez bestekoa (€)		21.372		18.981		9.523	11.057	21.068
LANGABEZIA PRESTAZIOAK	Pertsonak			9.570		37.029	1.197	906	48.702
	Zenbatekoa guztira (€)			52.254.223		112.400.195	5.175.975	2.500.082	172.330.475
	Batez bestekoa (€)			5.460		3.035	4.324	2.759	3.538
GUZTIRA	Pertsonak	281.821	172.933	9.570	14.228	37.029	1.197	906	517.684
	Zenbatekoa guztira (€)	8.534.827.571	3.695.853.693	52.254.223	537.298.866	753.097.226	16.575.584	23.963.384	13.613.870.548
	Batez bestekoa (€)	30.285	21.372	5.460	37.763	20.338	13.848	26.450	26.298


Grafikoa 1 – Jasotzaileen banaketa etekin motaren arabera eta talde esanguratsuenen batez bestekoa



2022an soldatak bakarrik jaso zituzten pertsonen batez besteko soldata 30.285 euroko izan zen; pentsioak bakarrik jaso zituztenen batez besteko pentsioa 21.372 eurokoa izan zen; eta langabezi prestazioak bakarrik jaso zituztenen batez besteko prestazioa 5.460 eurokoa.


Jasotako zenbatekoari dagokionez, 13.614 milioi eurotik, gehiengo nagusia (9.454 milioi euro; %69,4) soldatak dira; pentsioak guztiaren %29,3 dira (3.987 milioi euro), eta langabezia prestazioak 172 milioi euro (guztiaren %1,3).

Grafikoa 2 – Etekinen banaketa etekin motaren arabera



Etekin motaren arabera, batez bestekori handiena laneko etekinek dute, 28.307 euro; pentsioen batez bestekoa 21.068 eurokoa da; eta langabezia prestazioena 3.538 eurokoa.

Grafikoa 3 – Etekinen mota bakoitzaren batez bestekoa



3. SOLDATAK

2022. urtean laneko soldatak 333.984 pertsonak jaso dituzte, iaz baino %2,9 gehiagok. Zenbateko osoa, %8,3 igo da baita ere 2021arekin alderatuta. Pertsonako batez bestekoa 28.307 euro izan dira.

Taula 2. Soldaten bilakaera

	Kopurua	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Batez beste	Bar. %
2013	292.767		7.122.472.681		24.328	
2014	295.515	0,9	7.173.282.038	0,7	24.274	-0,2
2015	304.835	3,2	7.404.618.191	3,2	24.291	0,1
2016	310.811	2,0	7.610.321.945	2,8	24.485	0,8
2017	319.192	2,7	7.790.344.232	2,4	24.406	-0,3
2018	324.421	1,6	8.237.740.979	5,7	25.392	4,0
2019	330.326	1,8	8.579.555.593	4,1	25.973	2,3
2020	319.516	-3,3	8.274.749.959	-3,6	25.898	-0,3
2021	324.443	1,5	8.732.741.696	5,5	26.916	3,9
2022	333.984	2,9	9.454.211.153	8,3	28.307	5,2
2013/2022		14,1		32,7		16,4

Zenbatekoak eurotan

Azken hamar urteetan soldatak jaso dituzten pertsona kopurua %14,1 igo da. Punturik altuena 2022an eman da: 333.984 soldatapeko.

Jasotako soldatei dagokionez, %32,7 igo dira 2013. urtetik. Daturik handiena 2022. urtean lortu zen (9.454 milioi euro).

Pertsonako batez besteko soldata %16,4 igo da hamar urte hauetan: 24.328 eurotatik 28.307 eurotara. Erreferentzia moduan, aipatu daiteke epealdi berean Gipuzkoako Kontsumorako Prezioen Indizea %16,2 igo dela.

Mediana edo erdiko balioa aztertuta, batez besteko soldataren antzeko bilakaera izan duela ikusi daiteke; baina 2013-2022 epealdian medianak metatutako igoera batez bestekoa baino 1,4 puntu txikiagoa izan da. Mediana %15,0 igo da eta batez bestekoa %16,4 igo.

Taula 3. Medianaren bilakaera (eurotan)

	Zenbatekoa	Bar. %
2013	21.867	
2014	21.805	-0,3
2015	21.716	-0,4
2016	21.745	0,1
2017	21.478	-1,2
2018	22.339	4,0
2019	22.873	2,4
2020	22.799	-0,3
2021	24.021	5,4
2022	25.142	4,7
2013/2022		15,0

Soldatak nola banatzen diren ezagutzeko, bere banaketa aztertzen da dezilen arabera. Horiek osatzen dira, soldata jasotzaile guztiak soldata txikienetik handienara ordenatuta, eta pertsona kopuru berdineko taldeak osatuz. Horrela, talde edo dezila bakoitzak soldata jasotzen duten pertsona kopuru osoaren %10a suposatzen du: lehenengo dezilan (D1) sartzen dira soldatarik txikienak jasotzen duten %10a, eta azken dezila (D10) osatuta dago soldatarik handienak jasotzen duten pertsonen %10arekin.

Taula 4. Soldaten banaketa portzentuala dezilen arabera

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
D1	0,5	0,5	0,4	0,4	0,4	0,5	0,5	0,5	0,6	0,6
D2	2,3	2,2	2,1	2,1	2,1	2,3	2,3	2,2	2,4	2,4
D3	4,4	4,3	4,2	4,2	4,2	4,4	4,4	4,2	4,5	4,6
D4	6,5	6,3	6,2	6,2	6,2	6,3	6,3	6,0	6,3	6,4
D5	8,2	8,2	8,1	8,0	8,0	8,0	8,0	7,9	8,1	8,1
D6	9,8	9,9	9,8	9,7	9,7	9,6	9,6	9,7	9,8	9,7
D7	11,7	11,7	11,8	11,7	11,6	11,5	11,5	11,6	11,6	11,5
D8	13,9	14,0	14,0	14,0	13,9	13,7	13,7	13,8	13,7	13,6
D9	16,6	16,7	16,8	16,8	16,8	16,5	16,6	16,7	16,4	16,3
D10	26,0	26,3	26,6	26,8	27,0	27,1	27,1	27,3	26,8	26,8

Horrela, 2022. urtean soldatarik baxuenak jasotzen dituztenen %10aren soldatak (D1 dezila), gipuzkoar guztiek jasotako soldaten %0,6 metatu dute. Aldiz, soldatarik altuenak jaso dituztenek (D10 dezila), soldata osoen %26,8a metatu dute.

2013-2022 epealdian hiru lehenengo taldeak, hau da, soldata txikienak jasotzen dituztenak handitu egin dira, eta D4tik jaitsi. Gainera gehien igotzen den taldea soldata txikienak dituztenena da (D1). Aldiz, gehiena jaisten den dezila D8 da. Azken dezilak (D10) ere gora egiten du.

Taula 5. Bariazio portzentuala dezilen arabera

	2013/2022
D1	8,0
D2	5,0
D3	4,7
D4	-1,0
D5	-1,8
D6	-1,4
D7	-2,1
D8	-2,2
D9	-1,7
D10	3,2

Medianari dagokionez, dezila guztietan mediana igo egiten da. Gainera, gehien igotzen dena soldata txikiak dituztenena da (D1).

Taula 6. Medianaren balioa dezilen arabera

	2013	2017	2018	2019	2020	2021	2022
D1	1.083	987	1.083	1.103	1.259	1.333	1.444
D2	5.605	5.215	5.779	5.917	5.763	6.375	6.817
D3	10.634	10.304	11.141	11.578	10.859	12.089	13.122
D4	15.799	15.076	16.060	16.476	15.663	17.092	18.161
D5	19.976	19.417	20.276	20.795	20.408	21.742	22.791
D6	23.935	23.574	24.451	25.019	25.108	26.267	27.461
D7	28.499	28.323	29.204	29.819	30.015	31.068	32.480
D8	33.787	33.900	34.802	35.531	35.677	36.677	38.383
D9	40.285	40.980	41.811	42.784	43.155	44.032	45.979
D10	54.321	55.311	56.664	58.068	58.216	59.509	62.609

Taula 7. Medianaren bariazio portzentuala dezilen arabera

	2013/ 2022	KPI 13-22	Aldea	2017/ 2022	KPI 17-22	Aldea
D1	33,3	16,2	17,1	46,3	14,0	32,3
D2	21,6	16,2	5,4	30,7	14,0	16,7
D3	23,4	16,2	7,2	27,3	14,0	13,3
D4	15,0	16,2	-1,2	20,5	14,0	6,5
D5	14,1	16,2	-2,1	17,4	14,0	3,4
D6	14,7	16,2	-1,5	16,5	14,0	2,5
D7	14,0	16,2	-2,2	14,7	14,0	0,7
D8	13,6	16,2	-2,6	13,2	14,0	-0,8
D9	14,1	16,2	-2,1	12,2	14,0	-1,8
D10	15,3	16,2	-0,9	13,2	14,0	-0,8

Soldata banaketaren berdintasuna/ezberdintasuna aztertzeko beste modu bat, dezilen arteko ratioen bidez da.

- Soldaten D10/D1 erlazioak alderatzen du, goiko dezilan (soldata handienak) dauden pertsonen jasotzen duten zenbateko osoa, beheko dezilan (soldata txikienak) dauden pertsonen jasotzen duten zenbatekoarekin. 2022an 47,8ko ratio batek esan nahi du, soldata handieneko populazioaren %10ak jasotzen dituzten soldatak, soldata txikieneko populazioaren %10ak jasotzen dituztenak baino 47,8 aldiz handiagoak direla.
- Soldaten S80/S20 erlazioak alderatzen du, goiko bi deziletan (D9+D10) dauden pertsonen jasotzen duten zenbateko osoa, beheko bi deziletan (D1+D2) dauden pertsonen jasotzen duten zenbatekoarekin. 2022an 14,5eko ratio batek esan nahi du, soldata handieneko populazioaren %20ak jasotzen dituzten soldatak, soldata txikieneko populazioaren %20ak jasotzen dituztenak baino 14,5 aldiz handiagoak direla.

Taula 8. Dezilen arteko ratioak (%)

	2013	2017	2022	bariazioa 2013/2022	bariazioa 2017/2022
Soldatak D10/D1	50,0	60,5	47,8	-4,4	-20,9
Soldatak S80/S20	15,1	17,0	14,5	-4,0	-14,6
Mediana D10/D1	50,2	56,0	43,4	-13,6	-22,6
Mediana S80/S20	14,1	16,7	13,4	-4,8	-19,6

- Medianaren D10/D1 erlazioak alderatzen du, goiko dezilan (soldata handienak) dauden pertsonen soldataren mediana, beheko dezilan (soldata txikienak) dauden pertsonen soldataren medianarekin. 2022an 43,4ko ratio batek esan nahi du, D10 dezilaren (soldata handieneko populazioaren %10a) mediana, D1 dezilaren (soldata txikieneko populazioaren %10a) mediana baino 43,4 aldiz handiagoa dela.
- Medianaren S80/S20 erlazioak alderatzen du, goiko bi dezilatan (D9+D10) dauden pertsonen soldataren mediana, beheko bi dezilatan (D1+D2) dauden pertsonen soldataren medianarekin. 2022an 13,4ko ratio batek esan nahi du, goiko dezilen (soldata handieneko populazioaren %20a) mediana, beheko dezilen (soldata txikieneko populazioaren %20a) mediana baino 13,4 aldiz handiagoa dela.

2013-2022 epealdian ratio guztiak modu garrantzitsuan jaitsi ziren. D10/D1 erlazioaren kasuan, soldaten ratioa %4,4 jaitsi zen eta medianarena %13,6. S80/S20 erlazioan, jaitsiera %4,0 eta %4,8 izan zen, hurrenez hurren.


Aldiz, 2017-2022 epealdiaren konparaketan ratio guztiak askoz gehiago jaisten dira. D10/D1 erlazioaren kasuan, soldaten ratioa -%20,9 jaitsi da eta medianarena -%22,6. S80/S20 erlazioan, jaitsiera -%14,6 eta -%19,6 izan da, hurrenez hurren.

3.1. Soldatak sexuaren arabera

Jasotzaileei buruzko informazioa eskuratzerakoan, zenbait aitortpenetan datu batzuk jaso gabe daudela konturatu gara; esaterako, pertsonen sexua. Horrela, 2022. urteko 333.984 soldatapekotik ez dugu ezagutzen 9.701aren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, %2,9ko hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.


Soldatak jasotzen dituzten guztietatik, %47,2 emakumezkoak dira, eta beste %52,8 gizonezkoak. Baina zenbatekoari begiratzen badiogu, emakumezkoek guztiaren %41,0 jasotzen dute, eta gizonezkoek %59,0.

Grafikoa 4 – Soldaten banaketa sexuaren arabera -2022



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezko soldatapekoen batez bestekoa 25.006 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 32.131 eurokoa.

Grafikoa 5 – Soldaten batez bestekoa sexuaren arabera -2022



Azkeneko hamar urteetan emakumezkoen parte hartzea lan merkatuan nabarmen handitu da: 2013an 128.699 emakume ziren laneko soldatak jasotzen zituztenak; 2022an kopuru hori 152.922ra igo da, hau da, %18,8 gehiago. Gizonezkoak, berriz, 152.262tik 171.361era pasa dira (+%12,5). Urtez urteko bariazioak aztertuz gero, soldatak jasotzen dituzten emakumezko eta gizonezko kopurua 2020an bakarrik jaitsi zen. 2022an emakumezkoen kopurua %4,7 igo zen, eta gizonezkoen kopuruak %1,0 egin zuen gora.

Taula 9. Soldatapekoen bilakaera sexuaren arabera

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2013	128.699		152.262	
2014	131.354	2,1	153.948	1,1
2015	135.184	2,9	156.927	1,9
2016	139.823	3,4	161.284	2,8
2017	143.916	2,9	165.180	2,4
2018	146.122	1,5	169.621	2,7
2019	149.143	2,1	171.182	0,9
2020	145.367	-2,5	166.362	-2,8
2021	146.122	0,5	169.621	2,0
2022	152.922	4,7	171.361	1,0
2013/2022		18,8		12,5

Bilakaera ezberdin horren ondorioz, emakumezkoen pisua soldatapeko guztien artean 1,4 puntu igo da azken hamar urteetan: 2013an soldatak jasotzen zituzten pertsona guztien %45,8 zen emakumezkoa, eta 2022an, lehen aipatutako %47,2ra iritsi dira. Ondorioz, gizonezkoak alderantzizko bide egin dute: %54,2 izatetik %52,8 izatera pasa dira.

Kopuruaren bilakaera horrek isla izan du zenbatekoetan. Horrela, 2013an emakumezkoek jasotako soldatak 2.701 milioi euro izan ziren bitartean, 2022an 3.824 milioi euro izan dira; hau da, %41,6 gehiago. Gainera, taulan ikusten denez, 2020 urtean izan ezik, beste guztietan bariazio positiboak izan dituzte.

Taula 10. Soldaten bilakaera sexuaren arabera (milioi eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2013	2.701		4.239	
2014	2.738	1,4	4.294	1,3
2015	2.841	3,8	4.406	2,6
2016	2.939	3,4	4.547	3,2
2017	3.023	2,9	4.634	1,9
2018	3.185	5,4	4.961	7,1
2019	3.372	5,9	5.104	2,9
2020	3.285	-2,6	4.904	-3,9
2021	3.495	6,4	5.137	4,8
2022	3.824	9,4	5.506	7,2
2013/2022		41,6		29,9

Gizonezkoak jasotako soldatak %29,9 igo dira hamar urte hauetan: 4.239 milioi eurotik 5.506 milioi eurora. Bilakaera ezberdin horren ondorioz, emakumezkoen soldaten pisua 2,1 puntu igo da hamar urte hauetan: 2013ko 38,9tik lehen aipatutako %41,0ra. Eta gizonezkoena %61,1etik %59,0ra pasa da.

Taula 11. Batez besteko soldaten bilakaera sexuaren arabera (eurotan)


	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2013	20.990		27.840	
2014	20.846	-0,7	27.894	0,2
2015	21.018	0,8	28.076	0,7
2016	21.019	0,0	28.194	0,4
2017	21.007	-0,1	28.052	-0,5
2018	21.798	3,8	29.247	4,3
2019	22.611	3,7	29.815	1,9
2020	22.601	0,0	29.476	-1,1
2021	23.916	5,8	30.284	2,7
2022	25.006	4,6	32.131	6,1
2013/2022		19,1		15,4

2013tik 2022ra emakumezko soldatapekoen batez bestekoa %19,1 igo da: 20.990 eurotik 25.006 eurora. Gizonezko soldatapekoena, berriz, %15,4 igo da: 27.840 eurotik 32.131 eurora.

Sexuen arteko batez bestekoaren arrailak gora-behera handiak izan ditu azken hamar urte hauetan:

- 2013. urtean 6.850 eurokoa zen. Horrek adierazten du emakumezkoen soldata gizonezkoena baino %24,6 txikiagoa zela.
- 2013–2022 epealdian, arrailak gora eta behera egin du, azken urtean gora egiteko. Azken urte honetan 7.125 eurokoa da. Nahiz eta balio absolutuetan alde handia ez egon 2013ko zenbatekoarekin (6.850 euro), balio erlatiboetan aztertuta arraila 2,4 puntu jaitsi da: 2013ko %24,6tik 2022ko %22,2ra.

Grafikoa 6– Sexuen arteko batez bestekoaren arrailaren bilakaera (euroak eta %)



3.2. Soldatak nazionalitatearen arabera

Nazionalitatea definitzen da herritar bat eta Estatu baten arteko lege harreman berezi gisa; horrela, espainiar nazionalitatea dutenen eta ez dutenen arteko bereizketa egingo dugu. Sailkapen hori egiten da, NANaren lehen letraren arabera: X edo Y atzeritarrentzat, eta beste letra guztiak espainiarrentzat.

Horrela, Gipuzkoan bizi diren soldata jasotzailearen nazionalitateari erreparatzen badiogu, gehiengo nagusia bertakoa dela ikusten da: 2022an %91,6 dira bertakoak eta beste %8,4 atzeritarrek.

Taula 12. Soldatapekoen bilakaera nazionalitatearen arabera

	Bertakoak	Bar. %	Atzeritarrak	Bar. %
2013	277.800		14.967	
2014	280.398	0,9	15.117	1,0
2015	289.043	3,1	15.792	4,5
2016	293.351	1,5	17.460	10,6
2017	299.545	2,1	19.647	12,5
2018	301.822	0,8	22.599	15,0
2019	305.606	1,3	24.720	9,4
2020	295.893	-3,2	23.623	-4,4
2021	299.522	1,2	24.921	5,5
2022	305.929	2,1	28.055	12,6
2013/2022		10,1		87,4

Dena den azken hamar urteetan atzeritarren partaidetza era garrantzitsuan handitu da: 2013an 14.967 pertsona ziren atzeritarrak, eta 2022an 28.055 dira; hau da, %87,4 gehiago. 2019. urte arte iraun du goranzko joerak. 2020an %4,4 behera egin du pertsona atzeritarren kopuruak, 2021ean %5,5 gora eta 2022an ere %12,6 gora (epealdiko kopuru handiena jaso du).

Atzeritarrek jasotako soldatak ere nabarmen handitu dira azken hamar urteetan: 2013an 192 milioi euro jaso zituzten, eta 2022an, berriz, 458 milioi euro (+%138,9). 2014. urtean goranzko joera hasi da eta 2022an epealdiko kopuru handiena jaso du. 2020an %8,2 behera egin zuen.

**Taula 13. Soldaten bilakaera nazionalitatearen arabera
(milioi eurotan)**

	Bertakoak	Bar. %	Atzeritarrak	Bar. %
2013	6.931		192	
2014	6.978	0,7	195	1,7
2015	7.200	3,2	205	5,0
2016	7.388	2,6	222	8,4
2017	7.540	2,0	251	13,0
2018	7.932	5,2	306	21,9
2019	8.218	3,6	361	18,1
2020	7.943	-3,3	332	-8,2
2021	8.352	5,2	380	14,7
2022	8.996	7,7	458	20,4
2013/2022		29,8		138,9


Dena den, atzeritarrek izan duten bilakaera ikusgarri horrek ez du eragin garbirik jasotako batez besteko soldatan: aztertutako hamar urteetan %27,5 igo da (12.809 eurotik 16.328 eurora), bertakoen batez besteko soldata %17,9 igo den bitartean (24.949 eurotik 29.406 eurora).

Bi taldeen arteko arraila 2022. urtean 13.078 eurokoa izan da; horrek esan nahi du atzerritarren soldata bertakoena baino %44,5 txikiagoa dela. Arraila hori azken hamar urteetan gora eta behera ibili da, eta azkeneko urtean gora egin du.

Taula 14. Batez besteko soldaten bilakaera nazionalitatearen arabera (eurotan)

	Bertakoak	Bar. %	Atzerritarrak	Bar. %
2013	24.949		12.809	
2014	24.887	-0,2	12.897	0,7
2015	24.910	0,1	12.962	0,5
2016	25.186	1,1	12.710	-1,9
2017	25.170	-0,1	12.766	0,4
2018	26.280	4,4	13.531	6,0
2019	26.892	2,3	14.612	8,0
2020	26.845	-0,2	14.033	-4,0
2021	27.886	3,9	15.261	8,7
2022	29.406	5,5	16.328	7,0
2013/2022		17,9		27,5

Grafikoa 7– Nazionalitateen arteko batez bestekoaren arrailaren bilakaera (euroak eta %)



3.3. Soldatak adinaren arabera

Jasotzaileen sexuarekin gertatzen zitzaigun bezala, hemen ere zenbait hutsune ditugu pertsonen adina lortzerakoan. Horrela, 2022. urteko 333.984 soldatapekotik ez dugu ezagutzen 7.522ren adina. Horregatik, adin tarteen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, %2,3ko hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Normala den bezala, jasotzaile kopuruaren gehiengoak (%71,1) 36-65 urte tartetean kokatzen da. Oso gutxi dira 18 urtetik beherakoak (%0,3), eta 19-25 tartean daudenak kopuru osoaren %9,2 dira (30.067 pertsona). 26 eta 35 urte bitartean 56.410 soldatapeko daude (guztien %17,3); eta 65 urtetik gora 6.933 pertsona daude (%2,1).

Taula 15. Soldatak adin tarteen arabera - 2022

Adin tartea	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
<18	964	0,3	3.437.432	0,0	3.566
19-25	30.067	9,2	274.447.740	2,9	9.128
26-35	56.410	17,3	1.375.918.448	14,7	24.391
36-45	74.347	22,8	2.240.050.763	23,9	30.130
46-55	93.008	28,5	3.131.405.661	33,4	33.668
56-65	64.733	19,8	2.221.092.292	23,7	34.312
> 65	6.933	2,1	137.900.569	1,5	19.890
Guztira	326.462	100,00	9.384.252.905	100,0	28.745

Zenbatekoak eurotan

Soldaten zenbatekoari begiratuta, antzeko ondorioak ateratzen dira: %80,9a metatzen dute 36 eta 65 urte bitartekoak; gazteenak (35 urtetik beherakoak) soldata osoen %17,6 jasotzen dute, eta zaharrenak (65 urtetik gorakoak) %1,5a.

Dena den, adierazgarria da nola handitzen den batez besteko soldata adinean aurrera goazen neurrian. Horrela, zenbatekorik altuena 56-65 urteko soldatapekoak lortzen dute: 34.312 euro.

Tarteen arabera bi salto esanguratsu ikusten dira: 19-25 tartetik 26-35 tartera batez bestekoa 15.263 eurotan handitzen da (9.128 eurotik 24.391 eurora); eta 56-65 tartetik 65 urte baino gehiagoko tartera batez bestekoa 14.422 eurotan jaisten da (34.312 eurotik 19.890 eurora).

3.4. Soldatak LGSaren tarteen arabera

Jasotako soldata tarteetan banatzerakoan Lanbide arteko Gutxieneko Soldata (LGS) erabili da. Bere balio 2022. urtean 14.000 eurokoa da.

Jasotzaile kopuruari dagokionez, hiru tarte nabarmentzen dira:

- LGSren 0 eta 0,5 arteko soldata jasotzaile guztien %15,3k jasotzen dute (51.056 pertsona).
- LGSren 1,5 eta 2 arteko soldata jasotzaile guztien %14,9k jasotzen dute (49.708 pertsona).
- LGSren 1 eta 1,5 arteko soldata jasotzaile guztien %14,5ak jasotzen dute (48.551 pertsona).

Jasotzaile guztien erdiak baino gehiagok (%56,1) LGSren 2 baino gutxiago jasotzen dute, hau da, 28.000 euro baino gutxiago.

Taula 16. Soldatak LGSren tarteen arabera – 2022

Errenta tarteak (LGS)*	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
0 - 0,5	51.056	15,3	148.103.562	1,6	2.901
0,5 - 1	38.137	11,4	405.155.359	4,3	10.624
1 - 1,5	48.551	14,5	853.872.114	9,0	17.587
1,5 - 2	49.708	14,9	1.219.018.026	12,9	24.524
2 - 2,5	44.724	13,4	1.403.762.801	14,8	31.387
2,5 - 3	35.010	10,5	1.342.333.555	14,2	38.341
3 - 3,5	26.662	8,0	1.205.612.235	12,8	45.218
3,5 - 4	15.585	4,7	812.590.559	8,6	52.139
4 - 4,5	8.196	2,5	484.869.060	5,1	59.159
4,5 - 5	4.677	1,4	309.419.898	3,3	66.158
5 - 7,5	8.637	2,6	717.479.421	7,6	83.070
7,5 - 10	1.852	0,6	219.370.174	2,3	118.450
> 10	1.189	0,4	332.624.388	3,5	279.751
Guztira	333.984	100,00	9.454.211.153	100,00	28.307

Zenbatekoak eurotan

(*) 2022an Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren balio 14.000 eurokoa da

Soldatetan erdiko mailatan metatzen da zenbatekorik gehiena, LGSren 1,5 eta 3,5 bitartean; eta horien artean aipatzekoa da LGS 2 eta 2,5 bitartean jasotzen dutenak, guztiaren %14,8 metatzen dutela, kopuruan %13,4 direnean.

3.5. Soldatak ordaintzailearen ikuspegitik

Txostenaren sarreran aipatu dugun bezala, soldaten analisia bi ikuspegitik egiten da:

- Alde batetik, soldata jasotzen duen pertsonaren bizilekuan oinarritutakoa; orain arte aztertu ditugu Gipuzkoan bizi diren pertsonen datuak, nahiz eta horiek Gipuzkoatik kanpo lan egin.
- Beste alde batetik, puntu honetan aztertuko duguna da Gipuzkoan lan-zentroa duten ordaintzaileak ordaindutako soldatak, nahiz eta jasotzailea Gipuzkoatik kanpo helbideratua egon.

3.5.1. Izaera juridikoaren arabera

2022an 26.635 soldata ordaintzaile daude Gipuzkoan. Gehiengo nagusia sozietateak osatzen dute (%60,5) eta horien artean erantzukizun mugatutako sozietateak nabarmentzen dira (ordaintzaile guztien erdia, %50,4). Bigarren talde nagusia pertsona fisikoak dira (%27,1).

Jasotzaileei dagokionez, %40,6k erantzukizun mugatutako sozietateetan lan egiteagatik jasotzen dute soldata; %20,6k sozietate anonimoetan egiteagatik; administrazio publikoetan jasotzaile guztien %14,3k egin du lan; eta kooperatibetan %10,6k.

Taula 17. Soldatak izaera juridikoaren arabera – 2022

Izaera juridikoa	Ordaintzaile kopurua	%	Jasotzaile kopurua	%	Soldatak	%	Batez bestekoa
Enpresa pertsonalak	8.616	32,3	21.390	6,5	293.807.622	3,2	13.735
- Pertsona fisikoak	7.220	27,1	16.791	5,1	223.324.838	2,4	13.301
- Errenta egozpen erregimeneakoak	1.396	5,2	4.600	1,4	70.482.784	0,8	15.323
Sozietateak	16.103	60,5	239.712	72,5	6.564.644.560	71,4	27.386
- Sozietate anonimoak	1.634	6,1	67.946	20,6	2.222.851.857	24,2	32.715
- Erantzukizun mugatutako sozietateak	13.435	50,4	134.276	40,6	3.298.229.959	35,8	24.563
- Kooperatibak	810	3,0	35.001	10,6	971.808.199	10,6	27.765
- Bestelakoak	224	0,8	2.490	0,8	71.754.544	0,8	28.819
Administrazio publikoak	190	0,7	47.326	14,3	1.803.811.475	19,6	38.114
Irabazi asmorik gabeko entitateak	1.726	6,5	22.071	6,7	538.122.399	5,8	24.382
Guztira	26.635	100,0	330.500	100,0	9.200.386.056	100,0	27.838

Zenbatekoak eurotan

Soldaten zenbatekorik gehiena erantzukizun mugatutako sozietateak ordaintzen dituzte, guztiaren %35,8; sozietate anonimoak ere portzentaje

handia metatzen dute (%24,2); administrazio publikoek soldaten %19,6 ordaintzen dituzte; eta kooperatibak %10,6.

Soldataren batez besteko handiena administrazio publikoetan lan egiten dutenak jasotzen dute: 38.114 euro. Sozietate anonimoetako langileen batez bestekoa 32.715 eurotako da, bestelako sozietatetakoena 28.819 euro, eta kooperatibetakoena 27.765 euro. Zenbatekorik txikiak enpresa pertsonaletan lan egiten dutenena da: 13.735 euro.

Beraz, eta laburtuz:

- Ordaintzaile gehienak erantzukizun mugatutako sozietateak dira.
- Jasotzaile gehienak erantzukizun mugatutako sozietateetan egiten dute lan.
- Soldaten zenbatekorik gehiena erantzukizun mugatutako sozietateak ordaintzen dituzte.
- Batez besteko soldatarik handienak administrazio publikoetako langileak jasotzen dituzte.

Ondorengo tauletan azken hamabi urteetan 5 talde nagusiek izan duten bilakaera aztertzen da.

Taula 18. Jasotzaileen bilakaera izaera juridikoaren arabera

Urtea	Enpresa pertsonalak	Bar. %	Sozietate anonimoak	Bar. %	Erantzukizun mugatutako sozietateak	Bar. %	Kooperatibak	Bar. %	Administrazio publikoak	Bar. %
2013	22.171		71.666		98.412		30.935		39.386	
2014	22.784	2,8	71.135	-0,7	101.959	3,6	30.653	-0,9	40.249	2,2
2015	23.519	3,2	72.192	1,5	107.131	5,1	31.441	2,6	42.140	4,7
2016	23.622	0,4	70.293	-2,6	111.384	4,0	31.736	0,9	44.183	4,8
2017	23.727	0,4	72.352	2,9	116.427	4,5	32.899	3,7	44.901	1,6
2018	23.810	0,4	73.196	1,2	120.491	3,5	34.155	3,8	42.907	-4,4
2019	23.434	-1,6	72.479	-1,0	124.932	3,7	34.869	2,1	44.692	4,2
2020	21.298	-9,1	68.594	-5,4	120.957	-3,2	34.663	-0,6	45.167	1,1
2021	21.012	-1,3	68.932	0,5	126.377	4,5	34.796	0,4	46.361	2,6
2022	21.390	1,8	67.946	-1,4	134.276	6,2	35.001	0,6	47.326	2,1
2013/2022	-781	-3,5	-3.720	-5,2	35.864	36,4	4.066	13,1	7.940	20,2

Langile kopuruari dagokionez:

- Enpresa pertsonalak langileak galdu ditu. 2013. urteko 22.171 langiletik 21.390 langilera pasa da hamar urteetan (-%3,5).
- Sozietate anonimoak izan dira langile gehien galdu dutenak. 2012tik aurrera galera nabarmenak dituzte, eta aztertutako hamar urteko epealdian langile kopurua %5,2 jaitsi da (3.720 jasotzaile gutxiago).
- Erantzukizun mugatutako sozietateak dira bilakaera hobea izan dutenak. Hamar urteko epealdian langile kopurua 35.864 pertsonetan egin zuen gora (+%36,4) eta soilik 2020. urtean %3,2ko beherakada eman zen (3.975 pertsona gutxiago).
- Kooperatibetan lan egiten duten pertsona kopurua %13,1 igo da azken hamar urteetan. 2014ko eta 2020ko (-%0,9 eta -%0,6) beherakadak izan ezik, beste urte guztietan igoerak eman dira, eta igoerarik handiena 2018n eman zen (+%3,8). 2022an %0,6 egiten du gora.
- 2013tik 2022ra administrazio publikoetako langile kopurua %20,2 handitu da. Dena den, 2018 urtean beherakada eman da, -%4,4. 2022an %2,1 egin du gora.

Taula 19. Soldaten bilakaera izaera juridikoaren arabera (eurotan)

Urtea	Enpresa pertsonalak	Bar. %	Sozietate anonimoak	Bar. %	Erantzukizun mugatutako sozietateak	Bar. %	Kooperatibak	Bar. %	Administrazio publikoak	Bar. %
2013	255.498.865		2.062.480.822		2.067.939.902		733.482.727		1.341.122.222	
2014	254.360.923	-0,4	2.033.101.431	-1,4	2.142.429.873	3,6	735.866.926	0,3	1.353.000.345	0,9
2015	264.056.098	3,8	2.017.382.192	-0,8	2.273.048.843	6,1	769.928.901	4,6	1.383.297.511	2,2
2016	268.437.371	1,7	2.006.884.758	-0,5	2.392.587.031	5,3	793.663.070	3,1	1.420.018.789	2,7
2017	277.097.297	3,2	2.014.444.066	0,4	2.520.924.144	5,4	799.438.012	0,7	1.446.899.205	1,9
2018	287.833.852	3,9	2.122.710.322	5,4	2.704.208.341	7,3	867.681.952	8,5	1.469.748.223	1,6
2019	290.324.135	0,9	2.149.461.508	1,3	2.872.730.600	6,2	897.478.139	3,4	1.568.351.203	6,7
2020	235.889.933	-18,7	2.080.006.061	-3,2	2.718.727.636	-5,4	874.221.263	-2,6	1.600.532.895	2,1
2021	262.126.170	11,1	2.153.049.820	3,5	2.919.196.355	7,4	913.261.889	4,5	1.664.728.168	4,0
2022	293.807.622	12,1	2.222.851.857	3,2	3.298.229.959	13,0	971.808.199	6,4	1.803.811.475	8,4
2013/2022	38.308.757	15,0	160.371.035	7,8	1.230.290.057	59,5	238.325.472	32,5	462.689.253	34,5

Azken hamar urteetan ordaindutako soldatei dagokionez, aztertutako talde guztiak bilakaera positiboa erakusten dute:

- Enpresa pertsonalak %15,0ko igoera izan dute. 2014 arte jaitsierak eman ziren urtez urte; baina hortik aurrera igoerak eman dira, eta 2020an %18,7 egin zuten behera, berriz 2021ean %11,1 eta 2022an %12,1 gora egiteko.
- Sozietate anonimoetan, guztizko soldatek behera egin dute 2016ra arte, gora egin dute 2017tik 2019ra, behera 2020an, eta gora, berriz, 2021ean eta 2022an. Ordaindutako guztizko soldatak %7,8 igo dira 10 urte horietan.
- Erantzukizun mugatuko sozietateek ordaindutako guztizko soldatak 2020an soilik jaitsi dira, -%5,4. Gainerako urteetan, hazkundearen batez besteko ehunekoa %6,8 izan da. Guztira, soldatak %59,2 igo dira azken hamar urteetan.
- Kooperatibek ordaindutako guztizko soldaten bilakaera aurreko taldeen antzekoa da: 2020an %2,6 jaitsi dira, eta gainerako urteetan batez besteko igoera-ehunekoa %3,9 da. Guztira, soldatak %32,5 igo dira 10 urteko aldian.
- Administrazio publikoetan soldatak epealdiko urte guztietan gora egin dute eta 2013-2022 epealdian ordaindutako soldata osoak %34,5 handitu dira. 2020an igoera izan duen talde bakarra da, +%2,1.

Azken hamar urteetan soldaten batez bestekoak izan duen portaerari dagokionez, badira alderdi aipagarri batzuk. Igoerarik handiena enpresa pertsonaletako langileen soldatetan gertatu da: +%19,2. Ondoren, kooperatibetako enplegatuek daude (+%17,1), eta erantzukizun mugatuko sozietateetan lan egiten dutenak datoz atzetik (+%16,9). Sozietate anonimoetako langileen soldatak %13,7 igo dira 2013tik 2022ra, eta, azkenik, administrazio publikoen batez besteko soldata %11,9 igo da.

Aldi horretan bertan Gipuzkoako Kontsumoko Prezioen Indizea %16,2 igo zela kontuan hartuta, alde argiak ikusten dira erakunde ordaintzaile moten artean. Horrela, aztertutako hamar urteetan, erosteko ahalmena galdu dute honako enplegatuek: sozietate anonimoek (2,5 puntu) eta administrazio publikoek (4,3 puntu); enpresa pertsonaletan lan egiten dutenek (3,0 puntu), erantzukizun mugatuko sozietateek (0,7 puntu) eta kooperatiba-sozietateek (0,9 puntu), berriz, erosteko ahalmena irabazi dute.

Taula 20. Soldaten batez bestekoaren bilakaera izaera juridikoaren arabera (eurotan)

Urtea	Enpresa pertsonalak	Bar. %	Sozietate anonimoak	Bar. %	Erantzukizun mugatutako sozietateak	Bar. %	Kooperatibak	Bar. %	Administrazio publikoak	Bar. %
2013	11.524		28.779		21.013		23.710		34.051	
2014	11.164	-3,1	28.581	-0,7	21.013	0,0	24.006	1,2	33.616	-1,3
2015	11.228	0,6	27.945	-2,2	21.218	1,0	24.488	2,0	32.826	-2,3
2016	11.364	1,2	28.550	2,2	21.480	1,2	25.008	2,1	32.140	-2,1
2017	11.679	2,8	27.842	-2,5	21.652	0,8	24.300	-2,8	32.224	0,3
2018	12.089	3,5	29.000	4,2	22.443	3,7	25.404	4,5	34.255	6,3
2019	12.389	2,5	29.656	2,3	22.994	2,5	25.739	1,3	35.092	2,4
2020	11.076	-10,6	30.323	2,2	22.477	-2,3	25.221	-2,0	35.436	1,0
2021	12.475	12,6	31.234	3,0	23.099	2,8	26.246	4,1	35.908	1,3
2022	13.735	10,1	32.715	4,7	24.563	6,3	27.765	5,8	38.114	6,1
2013/2022	2.211	19,2	3.936	13,7	3.550	16,9	4.055	17,1	4.064	11,9

3.5.2. Langile kopuruaren arabera

Soldaten ordaintzaileak dituen langile kopuruaren arabera, gehiengo nagusiak (%59,9) langile 1 eta 3 bitartean ditu. Hurrengo tartean, 4-9 langile, ordaintzaile guztien %21,6a, eta 10-19 langile bitartean %9,2. Beraz, Gipuzkoako ordaintzaile guztien %90,7k 20 langile baino gutxiago ditu.

Jasotzaile kopuruaren banaketa askoz orekatuagoa da. Dena den, kopururik handiena 500 langile baino gehiago dituzten 54 ordaintzaileetan metatzen da: 82.634 (%25,0).

Batez beste, Gipuzkoako ordaintzaile bakoitzak 12,4 langile ditu.

Ordaindutako soldatek langile kopuruaren antzeko banaketa dute. Hemen ere 500 langiletik gorako ordaintzaileak nagusitzen dira: soldata guztien %28,9 metatzen dute.

Taula 21. Soldatak langile kopuruaren arabera – 2022

Tamaina (langile kopurua)	Ordaintzaile kopurua	%	Jasotzaile kopurua	%	Soldatak	%	Batez bestekoa
1-3	15.961	59,9	25.596	7,7	557.580.156	6,1	21.784
4-9	5.753	21,6	35.466	10,7	832.096.536	9,0	23.462
10-19	2.455	9,2	34.020	10,3	841.894.183	9,2	24.747
20-49	1.597	6,0	48.479	14,7	1.282.033.668	13,9	26.445
50-99	448	1,7	30.952	9,4	850.199.968	9,2	27.468
100 - 249	278	1,0	42.699	12,9	1.256.351.413	13,7	29.424
250- 499	89	0,3	30.654	9,3	918.669.545	10,0	29.969
>=500	54	0,2	82.634	25,0	2.661.560.588	28,9	32.209
Guztira	26.635	100,0	330.500	100,0	9.200.386.056	100,0	27.838

Zenbatekoak eurotan

Batez bestekoari dagokionez, ordaintzailearen tamaina zenbat eta handiago izan, orduan eta zenbateko altuagoa. 500 langiletik gorako ordaintzaileak soldata moduan 32.209 euro ordaintzen dituzte batez beste, eta 1-3 langile bitartean dituztenek, berriz, 21.784 euro ordaintzen dute.

3.5.3. Sektoreen arabera

Ordaintzaileei buruzko informazioa eskuratzerakoan, zenbait aitortpenetan datu batzuk jaso gabe daudela konturatu gara; esaterako, jarduera sektorea. Horrela, 2022. urteko 26.635 ordaintzailetik ez dugu ezagutzen 1.366ren jarduera sektorea; dena den, %5,1eko hutsune hori txikiagoa da jasotzaile kopurua aztertzerakoan (%2,8) eta ordaindutako soldatetan (%2,0). Beraz, hutsune horiek ez diote adierazgarritasunik kentzen lortutako emaitzei.

Merkataritza, garraioak eta konponketak sektorean dago Gipuzkoako ordaintzaile kopururik handiena: 8.423 (%33,3). Bigarren lekuan Aisialdia eta beste zerbitzu pertsonalen sektorea dago (%18,9), eta ondoren Enpresei eginiko zerbitzuak (%16,1). Hirurak ere zerbitzuei lotutako sektoreak dira. Industria sektorean, berriz, 2.944 ordaintzaile daude (guztien %11,7), eta eraikuntzan 3.022 (%12,0).

Baina banaketa hori aldatu egiten da soldata jasotzaile kopurua aztertzen badugu; izan ere, gizarte zerbitzuen sektorean dago kopururik handiena: 80.127 soldatapeko, hau da, guztien %24,9. Industrian 69.843 pertsonen (%21,7) jasotzen dute soldata, eta Merkataritza, garraioak eta konponketak sektorean 65.591 pertsonen (%20,4).

Taula 22. Soldatak sektoreen arabera – 2022

Sektoreak	Ordaintzaile kopurua	%	Jasotzaile kopurua	%	Soldatak	%	Batez bestekoa
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	51	0,2	211	0,1	4.370.336	0,0	20.748
Energia eta ura	94	0,4	2.680	0,8	90.688.221	1,0	33.844
Industria	2.944	11,7	69.843	21,7	2.381.212.290	26,4	34.094
Eraikuntza eta jarduera inmobiliarioa	3.022	12,0	17.767	5,5	504.036.510	5,6	28.369
Merkataritza, garraioak eta konponketak	8.423	33,3	65.591	20,4	1.570.744.276	17,4	23.948
Komunikazioak eta informazioa	37	0,1	135	0,0	4.351.600	0,0	32.244
Banka eta aseguruak	303	1,2	4.435	1,4	193.510.090	2,1	43.629
Enpresei eginiko zerbitzuak	4.072	16,1	44.599	13,9	1.034.071.025	11,5	23.186
Gizarte zerbitzuak	1.558	6,2	80.127	24,9	2.633.770.067	29,2	32.870
Aisialdi eta beste zerbitzu pertsonalak	4.765	18,9	35.973	11,2	595.717.482	6,6	16.560
Guztira	25.269	100,0	321.361	100,0	9.012.471.898	100,0	28.045

Zenbatekoak eurotan

Soldata zenbatekorik handiena gizarte zerbitzuetako jarduerak ordaintzen du (2.634 milioi euro; %29,2); Industria sektoreak egiten dituztenek 2.381 milioi euro ordaintzen dute (guztiaren %26,4); eta Merkataritza, garraioak eta konponketak sektoreko ordaintzaileak 1.571 milioi euro (%17,4).

Batez bestekorik handiena banka eta aseguru sektore ordaintzaileak ordaintzen dute: 43.629 euro bertan lan egiten duen 4.435 pertsonako. Ondoren industria sektorea dator: 34.094 euro. Energia eta ura sektoreko ordaintzaileak 33.844 euro ordaintzen dute batez beste; baina hor, 2.680 pertsonak bakarrik egiten dute lan.

Gipuzkoan lan-zentroa duten Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza sektoreko enpresek dituzten jasotzaile kopurua %72,70 igo da 2013tik. Dena den, esan beharra dago balio absolutuetan oso soldatapeko gutxi direla sektore horretan lan egiten dutenak.

Azken hamar urteetan Industria sektoreko ordaintzaileak 5.489 soldatapeko irabazi dituzte; 2013an 64.354 pertsonak egiten zuten lan, eta 2022an 69.843 pertsonak. Taulan ikusten denez, beherakada esanguratsuenak epealdiaren hasieran eta 2020an eman dira. 2022an %1,3 igo da (868 pertsona).

Eraikuntza eta jarduera inmobiliarioan langile kopururik altuena 2022an lortu da: 17.767 langile. 2013an jaitsiera handiena eman zen (-%8,5).

2013tik jaitsiera %4,9koa izan da. 2022an %1,3ko igoera izan du, 2021ean %2,7ko igoera izan ondoren.

Taula 23. Jasotzaileen bilakaera sektoreen arabera

	Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza		Energia eta ura		Industria		Eraikuntza eta jarduera inmobiliarioa		Merkataritza, garraioak eta konponketak	
		Bar. %		Bar. %		Bar. %		Bar. %		Bar. %
2013	122		2.885		64.354		16.938		55.760	
2014	145	18,9	2.954	2,4	63.885	-0,7	15.931	-5,9	56.938	2,1
2015	155	7,0	2.926	-0,9	63.592	-0,5	15.955	0,1	59.219	4,0
2016	145	-6,4	2.779	-5,0	64.169	0,9	16.384	2,7	60.790	2,7
2017	162	11,7	2.973	7,0	66.144	3,1	16.391	0,0	62.745	3,2
2018	193	18,7	2.913	-2,0	68.072	2,9	16.943	3,4	63.869	1,8
2019	219	13,6	2.505	-14,0	68.486	0,6	17.335	2,3	66.232	3,7
2020	208	-5,0	2.448	-2,3	67.058	-2,1	17.072	-1,5	64.163	-3,1
2021	221	6,1	2.648	8,2	68.975	2,9	17.540	2,7	64.750	0,9
2022	211	-4,6	2.680	1,2	69.843	1,3	17.767	1,3	65.591	1,3
2013/2022	89	72,7	-205	-7,1	5.489	8,5	829	4,9	9.831	17,6

Taula 23. jarraipena

	Komunikazioak eta informazioa		Banka eta aseguruak		Enpresei eginiko zerbitzuak		Gizarte zerbitzuak		Aisialdi eta beste zerbitzu pertsonalak	
		Bar. %		Bar. %		Bar. %		Bar. %		Bar. %
2013	195		7.013		33.664		65.538		29.668	
2014	176	-9,7	5.644	-19,5	34.442	2,3	66.850	2,0	30.817	3,9
2015	158	-10,4	6.543	15,9	37.216	8,1	69.162	3,5	32.404	5,1
2016	175	11,3	5.112	-21,9	36.581	-1,7	71.092	2,8	34.423	6,2
2017	190	8,2	5.224	2,2	37.880	3,6	72.999	2,7	35.312	2,6
2018	168	-11,7	5.059	-3,2	38.843	2,5	71.605	-1,9	36.103	2,2
2019	161	-3,9	4.912	-2,9	39.436	1,5	74.843	4,5	35.609	-1,4
2020	140	-12,8	4.675	-4,8	37.637	-4,6	75.650	1,1	31.005	-12,9
2021	137	-2,7	4.509	-3,6	40.234	6,9	78.778	4,1	32.280	4,1
2022	135	-1,2	4.435	-1,6	44.599	10,9	80.127	1,7	35.973	11,4
2013/2022	-60	-30,8	-2.578	-36,8	10.935	32,5	14.589	22,3	6.305	21,3

(*) 2014n hobekuntza bat eman da 190 ereduak ematen duen informazioan. Aldaketa horren eraginez, lan kontingentzia jakin batzuk estaltzera jarduten diren zenbait entitateek, lehen A (soldata) bezala aitortzen zituzten kontzeptu batzuk, orain B (pentsioak) bezala aitortzen dituzte. Irizpide aldaketa horrek 13,5 puntuko distorsio negatiboa sortzen du 2013/2014 konparaketan. Baldintza homogeneotan, bariazioa %6koa da, eta -%3,9koa 2003/2014 epealdian metatua.

Merkataritza, garraioak eta konponketak sektoreko soldatapeko kopurua %17,6 igo da 2013ko datuekin alderatuta. Dena den, hemen ere krisiaren eragina nabarmentzen da, eta 2013n eta soldatapeko

kopuruak behera egin zuen. 2014an joera aldatzen da eta jasotzaile kopurua igo egiten da (+%2,1). 2015ean igoera handitu egin da (+%4,0) , 2016an %2,7 igo zen, 2017an %3,2 igo zen, 2018an %1,8 igo zen, 2019an %3,7 igo eta 2020an %3,1 jaitsi da. 2021ean igoerako bidera bueltatzen da (+%0,9), eta 2022an %1,3 igo da.

Gipuzkoako Banka eta aseguru sektorean 4.435 jasotzaile daude 2022. urtean, orain dela 10 urte baino %36,8 gutxiago.

Enpresei eginiko zerbitzuetako soldatapeko kopurua hamar urte hauetan, 2013ko 33.664tik 2022ko 44.599ra pasa da. Dena den, urteetan zehar gora beherak eman dira, eta 2008 arte irabazitako 5.000 soldatapeko, krisiarekin galdu egin dira. 2014. urtean hobekuntza motel bat eman da, eta %2,3 igo da, eta 2015ean igoera finkatzen da (+%8,1). 2016an %1,7 jaisten da. 2017an gora egiten du, %3,6, 2018an %2,5 gora egiten du eta 2019an berriro gora egiten du (+%1,5). 2020an %4,6 behera egiten du. 2021ean %6,9 eta 2022an %10,9, egiten du gora.

Balio absolutuetan jasotzaile gehien irabazi duen sektorea Gizarte zerbitzuetakoa da: 2013an baino 14.589 soldatapeko gehiago (+%22,3).

Eta azkenik, Aisialdia eta beste zerbitzu pertsonaletako sektoreak soldatapeko kopuru %21,3ko hazkundera izan du 2013 eta 2022 urteen artean. Azken hamar urteetan, igoerak izan ditu lehenengo urteetan eta jaitziera garrantzitsua 2019an eta 2020an (2020an eman da jaitziera handiena, 4.604 soldatapeko gutxiago, %12,9 gutxiago). 2021ean joera aldatzen da eta %4,1 egiten du gora, eta 2022an %11,4 hazi da.

Zenbatekoei dagokionez berriz, komunikazioak eta informazioa (-%32,4) eta banka eta aseguruak (-%28,7), 2022an ordaindutako soldata osoa 2013koa baino txikiago da.

Igoerarik handiena portzentualki Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako sektorean eman da: +%93,1; eta igoerarik txikiena energia eta ura sektorean (+%4,6).

Taula 24. Soldata osoen bilakaera sektoreen arabera (eurotan)

	Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	Bar. %	Energia eta ura	Bar. %	Industria	Bar. %	Eraikuntza eta jarduera inmobiliarioa	Bar. %	Merkataritza, garraioak eta konponketak	Bar. %
2013	2.263.535		86.721.704		1.870.225.059		377.308.913		1.169.891.221	
2014	2.510.587	10,9	88.271.911	1,8	1.880.075.194	0,5	363.647.798	-3,6	1.185.029.592	1,3
2015	2.733.262	8,9	86.502.323	-2,0	1.897.120.800	0,9	365.450.448	0,5	1.234.099.595	4,1
2016	2.530.119	-7,4	83.350.568	-3,6	1.935.595.906	2,0	373.554.251	2,2	1.279.825.336	3,7
2017	2.976.499	17,6	85.759.630	2,9	1.955.254.914	1,0	383.684.697	2,7	1.326.209.987	3,6
2018	3.767.459	26,6	87.668.231	2,2	2.113.739.272	8,1	411.010.064	7,1	1.386.382.194	4,5
2019	4.150.087	10,2	78.933.610	-10,0	2.169.482.841	2,6	441.967.569	7,5	1.451.098.322	4,7
2020	4.076.475	-1,8	79.419.514	0,6	2.091.760.324	-3,6	439.005.241	-0,7	1.362.320.529	-6,1
2021	4.343.766	6,6	86.926.139	9,5	2.217.434.934	6,0	469.372.758	6,9	1.455.038.931	6,8
2022	4.370.336	0,6	90.688.221	4,3	2.381.212.290	7,4	504.036.510	7,4	1.570.744.276	8,0
2013/2022	2.106.801	93,1	3.966.517	4,6	510.987.231	27,3	126.727.597	33,6	400.853.055	34,3

Taula 24. Jarraipena

	Komunikazioak eta informazioa	Bar. %	Banka eta aseguruak	Bar. %	Enpresei eginiko zerbitzuak	Bar. %	Gizarte zerbitzuak	Bar. %	Aisialdi eta beste zerbitzu pertsonalak	Bar. %
2013	6.441.485		271.296.789		684.354.595		1.907.921.231		383.312.076	
2014	6.029.057	-6,4	246.860.218	-9,0	682.138.324	-0,3	1.934.707.520	1,4	400.996.254	4,6
2015	5.491.207	-8,9	247.134.804	0,1	738.132.470	8,2	1.981.046.464	2,4	419.423.928	4,6
2016	5.822.203	6,0	226.880.624	-8,2	754.107.874	2,2	2.019.252.253	1,9	459.752.546	9,6
2017	5.727.932	-1,6	220.602.118	-2,8	768.017.818	1,8	2.073.087.677	2,7	493.658.802	7,4
2018	5.098.541	-11,0	210.150.935	-4,7	821.133.038	6,9	2.120.344.390	2,3	540.114.177	9,4
2019	4.837.984	-5,1	208.440.844	-0,8	870.032.558	6,0	2.263.095.310	6,7	548.103.547	1,5
2020	4.257.198	-12,0	200.328.756	-3,9	849.688.379	-2,3	2.308.336.137	2,0	435.708.179	-20,5
2021	4.405.228	3,5	193.977.608	-3,2	933.233.973	9,8	2.443.229.747	5,8	492.576.841	13,1
2022	4.351.600	-1,2	193.510.090	-0,2	1.034.071.025	10,8	2.633.770.067	7,8	595.717.482	20,9
2013/2022	-2.089.885	-32,4	-77.786.699	-28,7	349.716.430	51,1	725.848.836	38,0	212.405.406	55,4

(*) 2014n hobekuntza bat eman da 190 ereduak ematen duen informazioan. Aldaketa horren eraginez, lan kontingentzia jakin batzuk estaltzera jarduten diren zenbait entitateek, lehen A (soldata) bezala aitortzen zituzten kontzeptu batzuk, orain B (pentsioak) bezala aitortzen dituzte. Irizpide aldaketa horrek distortsio negatiboa sortzen du, eta baldintza homogeneousan, 2003/2014 epealdian metatutako bariazioa +%4,6koa da.

4. PENTSIOAK

2022. urtean pentsio publikoak 189.264 pertsonak jaso dituzte, iaz baino %0,2 gehiagok. Jasotako pentsioen zenbateko osoa 3.987 milioi euro izan dira, 2021en baino %7,4 handiagoa. Pertsona bakoitzak jasotako batez besteko pentsioa 21.068 eurokoa izan da.

Taula 25. Pentsioen bilakaera

	Kopurua	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Batez beste	Bar. %
2013	167.526	1,6	2.685.394.580	4,7	16.030	3,0
2014	169.641	1,3	2.845.631.389	6,0	16.774	4,6
2015	174.854	3,1	2.958.724.879	4,0	16.921	0,9
2016	177.019	1,2	3.061.417.945	3,5	17.294	2,2
2017	180.494	2,0	3.166.919.292	3,4	17.546	1,5
2018	182.467	1,1	3.323.809.815	5,0	18.216	3,8
2019	185.078	1,4	3.513.293.661	5,7	18.983	4,2
2020	187.935	1,5	3.610.218.046	2,8	19.210	1,2
2021	188.889	0,5	3.713.117.259	2,9	19.658	2,3
2022	189.264	0,2	3.987.328.920	7,4	21.068	7,2
2013/2022		13,0		48,5		31,4

Zenbatekoak eurotan

Azken hamar urteetan pentsioak jaso dituzten pertsona kopurua %13,0 igo da. Eta igoera etengabea izan da urtez urte.

Jasotako pentsioei dagokionez, %48,5 igo dira 2013. urtetik: 2.685 milioi eurotik 3.987 milioi eurora. Kasu honetan ere, igoerak urtero eman dira etenik gabe. Pertsonako batez besteko pentsioa %31,4 igo da hamar urteko epealdi honetan: 16.030 eurotik 21.068 eurora. Erreferentzia moduan, aipatu daiteke epealdi berean Gipuzkoako Kontsumorako Prezioen Indizea %16,2 igo dela.


Datu horiek, pentsio publikoen arloan azken urteetan eman diren aldaketa garrantzitsuen isla garbia dira. Alde batetik, populazioaren adin-piramidea dela-eta pentsioa jasotzeko eskubidea duten pertsona kopurua etengabe handitzen ari da; eta beste alde batetik, sistemara gehitzen diren pertsona berriek gero eta pentsio altuagoekin egiten dute, izan ere, sistema egin dituzten kotizazioak handiagoak izan dira.

4.1 Pentsioak sexuaren arabera

Soldaten atalean esan den bezala, jasotzaileei buruzko informazioa eskuratzerakoan, zenbait aitortpenetan datu batzuk jaso gabe daudela konturatu gara; esaterako, pertsonen sexua. Horrela, 2022. urteko 189.264 pentsiodunetatik ez dugu ezagutzen 6.301aren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, %3,3ko hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Pentsiodun kopuruaren banaketa oso orekatua da: %49,8 emakumezkoa da, eta beste %50,2 gizonezkoa. Baina zenbatekoari begiratzen badiogu, emakumezkoek pentsio guztien %42,3 jasotzen dute, eta gizonezkoek %57,7.

Grafikoa 8 – Pentsioen banaketa sexuaren arabera -2022



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezkoen batez besteko pentsioa 18.101 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 24.486 eurokoa.

Grafikoa 9 – Pentsioen batez bestekoa sexuaren arabera -2022



Azken hamar urteetan emakumezko nahiz gizonezko pentsiodunen bilakaera oso antzekoa izan da. Emakumezkoak 78.570tik 91.124ra pasa dira (+%16,0), eta gizonezkoak 81.665etik 91.839ra (+%12,5).

Taula 26. Pentsiodunen bilakaera sexuaren arabera

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2013	78.570		81.665	
2014	79.557	1,3	83.023	1,7
2015	82.269	3,4	85.490	3,0
2016	83.429	1,4	86.777	1,5
2017	85.837	2,9	88.012	1,4
2018	88.221	2,8	91.293	3,7
2019	89.432	1,4	92.229	1,0
2020	90.672	1,4	93.213	1,1
2021	91.587	1,0	93.535	0,3
2022	91.124	-0,5	91.839	-1,8
2013/2022		16,0		12,5

Nahiz eta zenbateko osoaren bilakaeran antzeko joera izan, emakumezkoak jasotako pentsioak zerbait gehiago igo dira aztertutako hamar urteetan: +%65,0 (1.000 milioi eurotik 1.649 milioi eurora). Gizonezkoek jasotako pentsioak 1.597 milioi eurotik 2.249 milioi eurora pasa dira (+%40,8). Horren ondorioz, emakumezkoen pentsioen pisua 3,8 puntu igo da azken hamar urteetan: 2013ko %38,5etik lehen aipatutako %42,3ra. Beraz, gizonezkoak alderantzizko bide egin dute: %61,5etik %57,7ra.

Taula 27. Pentsioen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2013	999.917.213		1.596.829.770	
2014	1.067.389.051	6,7	1.689.496.928	5,8
2015	1.116.723.894	4,6	1.753.863.201	3,8
2016	1.168.100.503	4,6	1.810.292.017	3,2
2017	1.220.037.874	4,4	1.864.525.686	3,0
2018	1.319.366.427	8,1	1.968.134.408	5,6
2019	1.419.002.003	7,6	2.051.076.217	4,2
2020	1.469.301.021	3,5	2.090.017.038	1,9
2021	1.530.954.264	4,2	2.132.555.301	2,0
2022	1.649.420.906	7,7	2.248.749.915	5,4
2013/2022		65,0		40,8

2013tik 2022ra emakumezkoen batez besteko pentsioa %42,2 igo da: 12.726 eurotik 18.101 eurora. Gizonezkoena, berriz, %25,2 igo da: 19.553 eurotik 24.486 eurora. Lehenago aipatu dugun bezala, epealdi berean Gipuzkoako Kontsumorako Prezioen Indizea %16,2 igo da.


Taula 28. Batez besteko pentsioaren bilakaera sexuaren arabera (eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2013	12.726		19.553	
2014	13.417	5,4	20.350	4,1
2015	13.574	1,2	20.515	0,8
2016	14.001	3,1	20.861	1,7
2017	14.213	1,5	21.185	1,6
2018	14.955	5,2	21.558	1,8
2019	15.867	6,1	22.239	3,2
2020	16.205	2,1	22.422	0,8
2021	16.716	3,2	22.800	1,7
2022	18.101	8,3	24.486	7,4
2013/2022		42,2		25,2

Azken hamar urte hauetan sexuen arteko batez bestekoaren arrailak behera egin du balio erlatiboetan (grafikoaren errenkada urdina): 2013. urtean %34,9koa zen eta 2022an %26,1ekoa da. Horrek adierazten duena da emakumezkoen batez besteko pentsioa gizonezkoena baino %26,1 txikiagoa dela.

Balio absolutuetan ere, txikitu egin da: 2013an 6.827 euroko aldea zegoen, eta 2022an 6.385 eurokoa da.

Grafikoa 10 – Sexuen arteko batez bestekoaren arrailaren bilakaera



4.2. Pentsioak adinaren arabera

Pentsiodunen sexuarekin gertatzen zitzaigun bezala, hemen ere zenbait hutsune ditugu pertsonen adina lortzerakoan. Horrela, 2022. urteko 189.364 pentsiodunetatik ez dugu ezagutzen 279ren adina. Horregatik, adin tarteen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, %0,1eko hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

55 urtetik beherako pentsiodunen kopurua oso txikia da: guztien %4,6. Gero, adinean aurrera joan ahala kopuruak handitu egiten dira: 56-65 bitartekoak %15,1 dira (28.464 pertsona); 66-75 bitartean 72.841 pentsiodun daude (%38,5); eta gehiengoa azken tartean dago (75 urtetik gorakoa): 79.011 pertsona, hau da, guztien %41,8.

Taula 29. Pentsioak adin tarteen arabera - 2022

Adin tartea	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
<25	138	0,1	1.066.144	0,0	7.726
26 - 35	428	0,2	4.368.000	0,1	10.206
36 - 55	8.103	4,3	115.623.656	2,9	14.269
56 - 65	28.464	15,1	606.138.859	15,2	21.295
66 - 75	72.841	38,5	1.752.489.524	44,0	24.059
> 75	79.011	41,8	1.504.187.518	37,8	19.038
Guztira	188.985	100,00	3.983.873.701	100,0	21.080

Zenbatekoak eurotan

Pentsioen zenbatekoari begiratuta, antzeko ondorioak ateratzen dira: gazteenak (55 urtetik beherakoak) pentsio osoen %3,0 jasotzen dute; 56 eta 65 bitartekoak 606 milioi euro (%15,2); 66-75 bitartekoak 1.752 milioi euro (%44,0), eta zaharrenak (75 urtetik gorakoak) %37,8a.

Bestalde, batez besteko pentsiorik handiena 66 eta 75 urte bitartean dutenak jasotzen dute: 24.059 euro. Antzeko zenbatekoa jasotzen dute 56-65 bitartekoak (21.295 euro). Gero, jaitsi egiten da 75 urte baino gehiago dutenentzat: 19.038 euro.

4.3. Pentsioak Gutxieneko Pentsioaren tarteen arabera

Jasotako pentsioa tartetean banatzerakoan Gutxieneko Pentsioa (GP) erabili da. Bere balio 2022. urtean 9.590 eurokoa da.

Jasotzaile kopuruari dagokionez, lau tarte nabarmentzen dira:

- GParen 0,5 eta 1 arteko pentsioa jasotzaile guztien %9,2k jasotzen dute (17.479 pertsona).
- GParen 1 eta 1,5 arteko pentsioa jasotzaile guztien %22,1ek jasotzen dute (41.760 pertsona).
- GParen 1,5 eta 2 arteko pentsioa jasotzaile guztien %14,9k jasotzen dute (28.130 pertsona).
- GParen 2 eta 2,5 arteko pentsioa jasotzaile guztien %13,3k jasotzen dute (25.264 pertsona).

Taula 30. Pentsioak GParen tarteen arabera – 2022

Errenta tartea (GP)*	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
0 - 0,5	6.764	3,6	15.772.707	0,4	2.332
0,5 - 1	17.479	9,2	125.169.719	3,1	7.161
1 - 1,5	41.760	22,1	473.347.628	11,9	11.335
1,5 - 2	28.130	14,9	471.810.876	11,8	16.773
2 - 2,5	25.264	13,3	542.016.054	13,6	21.454
2,5 - 3	19.296	10,2	506.695.632	12,7	26.259
3 - 3,5	14.895	7,9	462.855.078	11,6	31.075
3,5 - 4	13.891	7,3	498.888.634	12,5	35.915
4 - 4,5	20.080	10,6	802.379.769	20,1	39.959
4,5 - 5	737	0,4	33.143.388	0,8	44.971
> 5	968	0,5	55.249.435	1,4	57.076
Guztira	189.264	100,00	3.987.328.920	100,00	21.068

Zenbatekoak eurotan

(*) 2022an Gutxieneko Pentsioaren balio 9.590 eurokoa da

Azkenean, jasotzaile guztien %34,9k GParen 1,5 baino gutxiago jasotzen dute, hau da, 14.385 euro baino gutxiago. Eta ia-ia hiru laurdenak (%63,1) GParen 2,5 baino gutxiago jasotzen dute, hau da, 23.975 euro baino gutxiago.

Pentsioen zenbatekoari dagokionez, gehiena 4-4,5 tartean metatzen da (802 milioi euro; %20,1); gero 2-2,5 tartea dator (542 milioi euro; %13,6); eta 3,5-4 tarteko pentsiodunek 499 milioi euro kobratzen dituzte, guztiaren %12,5.

5 LANGABEZIA PRESTAZIOAK

2022. urtean langabezia prestazioak 48.702 pertsonak jaso dituzte, iaz baino %35,2 gutxiagok. Covid-19aren ondorioz izan dira gora behera handi hauek. Zenbateko osoa 172 milioi eurokoa da, 2021ean baino %35,0 txikiagoa. Pertsonako batez bestekoa 3.538 euro izan dira.

Taula 31. Langabezia prestazioen bilakaera

	Kopurua	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Batez beste	Bar. %
2013	69.913		287.350.180		4.110	
2014	61.091	-12,6	234.185.693	-18,5	3.833	-6,7
2015	52.855	-13,5	184.648.737	-21,2	3.493	-8,9
2016	47.665	-9,8	156.835.634	-15,1	3.290	-5,8
2017	44.705	-6,2	142.344.094	-9,2	3.184	-3,2
2018	43.365	-3,0	135.518.305	-4,8	3.125	-1,9
2019	46.583	7,4	156.524.981	15,5	3.360	7,5
2020	136.657	193,4	451.088.932	188,2	3.301	-1,8
2021	75.106	-45,0	265.055.811	-41,2	3.529	6,9
2022	48.702	-35,2	172.330.475	-35,0	3.538	0,3
2013/2022		-30,3		-40,0		-13,9

Zenbatekoak eurotan

Azken hamar urteetan langabezia prestazioak jaso dituzten pertsona kopurua jaitsi egin da 21.211n: 69.913tik 48.702ra (-%30,3). 2018. urteraino, langabezia prestazioa jaso duten pertsona kopurua jaisten joan da. 2019an joera aldatu eta pertsona kopuruak gora egin du (+%7,4). 2020. urtean, covid-19aren ondorioz, igoera izugarri handitu da hau (+%193,4), eta 2021ean %45,0 eta 2022an %35,2, egiten dute behera.

Jasotako prestazioei dagokionez, kasu honetan ere, igoerarik handiena 2020n eman zen (+%188,2).


Pertsonako batez besteko langabezia prestazioa %13,9 jaitsi da hamar urteko epealdi honetan: 4.110 eurotik 3.538 eurora. Zenbatekorik handiena 2013koa izan da (4.110 euro).

5.1. Langabezia prestazioak sexuaren arabera

Soldata eta pentsioekin gertatu zaigun bezala, hemen ere jasotzaileen zenbait datu eskuratzerakoan hutsuneak ditugu; esaterako, pertsonen sexua lortzerakoan. Horrela, 2022. urtean langabezia prestazioa jasotzen duten 48.702 pertsonatik ez dugu ezagutzen 1.206ren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune txiki horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Langabezia prestazioa jasotzen duten guztietatik, %51,8 emakumezkoa da, eta beste %48,2 gizonezkoa. Zenbatekoari begiratzten badiogu, berriz, emakumezkoek guztiaren %49,2 jasotzen dute, eta gizonezkoek %50,8.

Grafikoa 11 – Langabezia prestazioen banaketa sexuaren arabera -2022



Azken hamar urteetan langabezia prestazio jaso duten emakumezko nahiz gizonezko kopuruaren bilakaera antzekoa izan da. 2020. urtean igoera handi bat eman zen eta 2021. Eta 2022. urteetan berriz jaitsiera handia, dena ere covid-19ren ondorioz:

- Emakumezkoen kopurua 30.715tik 24.621era jaitsi da (-%19,8).
- Gizonezkoen kopurua 35.304tik 22.875ra jaitsi da (-%35,2).

Taula 32. Langabezia prestazioen jasotzaileen bilakaera sexuaren arabera

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2013	30.715		35.304	
2014	28.340	-7,7	29.986	-15,1
2015	25.491	-10,1	24.576	-18,0
2016	23.818	-6,6	22.048	-10,3
2017	22.796	-4,3	20.067	-9,0
2018	23.035	1,0	19.510	-2,8
2019	24.047	4,4	21.272	9,0
2020	62.611	160,4	70.646	232,1
2021	36.845	-41,2	37.313	-47,2
2022	24.621	-33,2	22.875	-38,7
2013/2022		-19,8		-35,2

Zenbatekoan ere antzeko bilakaera ikusten da: emakumezkoak jaso dutena %29,5 jaitsi da (117 milioi eurotik 83 milioi eurora), eta gizonezkoena %45,2 jaitsi da (156 milioi eurotik 85 milioi eurora). 2020. urtean igoera handi bat eman zen eta 2021. eta 2022. urteetan berriz jaitsiera handia, dena ere covid-19ren ondorioz.

Taula 33. Langabezia prestazioen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2013	117.290.070		156.125.492	
2014	100.049.303	-14,7	124.872.316	-20,0
2015	83.890.340	-16,2	91.956.972	-26,4
2016	74.316.603	-11,4	77.003.589	-16,3
2017	69.433.627	-6,6	67.255.408	-12,7
2018	68.496.655	-1,3	64.668.545	-3,8
2019	75.171.796	9,7	77.439.559	19,7
2020	201.861.046	168,5	238.507.420	208,0
2021	125.742.300	-37,7	135.871.494	-43,0
2022	82.698.151	-34,2	85.479.137	-37,1
2013/2022		-29,5		-45,2

5.2. Langabezia prestazioak nazionalitatearen arabera

Lehenago aipatu dugun bezala, espainiar nazionalitatea dutenen eta ez dutenen arteko bereizketa egingo dugu. Sailkapen hori egiten da, NANaren lehen letraren arabera: X edo Y atzerritarrentzat, eta beste letra guztiak espainiarrentzat.

Gipuzkoan bizi diren langabezia prestazio jasotzaileen nazionalitateari erreparatzen badiogu, gehiengo nagusia bertakoa dela ikusten da: 2022an %89,2 dira bertakoak eta beste %10,8 atzerritarrak.

Dena den azken hamar urteetan atzeritarren partaidetza handitu egin da: 2013an 5.966 atzeritarrek jaso zuten langabezia prestazioa, eta 2022an 5.268 dira; hau da, %11,7 gutxiago. 2013-2017 epealdiak jaitsierak erakusten ditu. 2018an, 2019an eta 2020an kopuruak gora egin du, eta 2021ean eta 2022an berriro behera egin du.

Taula 34. Langabezia prestazioen jasotzaileen bilakaera nazionalitatearen arabera

	Bertakoak	Bar. %	Atzerritarrak	Bar. %
2013	63.947		5.966	
2014	55.843	-12,7	5.248	-12,0
2015	48.103	-13,9	4.752	-9,5
2016	43.293	-10,0	4.372	-8,0
2017	40.363	-6,8	4.342	-0,7
2018	38.866	-3,7	4.499	3,6
2019	41.638	7,1	4.945	9,9
2020	122.979	195,4	13.678	176,6
2021	66.406	-46,0	8.700	-36,4
2022	43.434	-34,6	5.268	-39,4
2013/2022		-32,1		-11,7

Atzeritar kopuruaren jaitiera, langabezia prestazioen zenbatekoan eman den jaitiera baina txikiagoa izan da; izan ere, beraiek jasotako zenbatekoa 2013an 22 milioi euro izatetik, 2022an 17 milioi euro izatera pasa da (-%23,8). Bertakoak jasotakoak behera egin du, 265 milioi eurotik 156 milioi eurora pasa da (-%41,4).

Taula 35. Langabezia prestazioen bilakaera nazionalitatearen arabera (eurotan)

	Bertakoak	Bar. %	Atzerritarrak	Bar. %
2013	265.311.049		22.039.131	
2014	216.968.717	-18,2	17.216.976	-21,9
2015	170.684.651	-21,3	13.964.085	-18,9
2016	144.453.135	-15,4	12.382.499	-11,3
2017	130.688.487	-9,5	11.655.608	-5,9
2018	123.795.099	-5,3	11.723.206	0,6
2019	142.580.651	15,2	13.944.330	18,9
2020	406.853.227	185,3	44.235.704	217,2
2021	236.541.967	-41,9	28.513.844	-35,5
2022	155.529.968	-34,2	16.800.506	-41,1
2013/2022		-41,4		-23,8

5.3. Langabezia prestazioak adinaren arabera

Jasotzaileen sexuarekin gertatzen zitzaigun bezala, hemen ere zenbait hutsune ditugu pertsonen adina lortzerakoan. Horrela, 2022. urtean langabezia prestazioa 48.102 pertsonetatik ez dugu ezagutzen 422ren adina. Horregatik, adin tarteen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

25 urtetik beherakoak jasotzaile guztien %6,0 dira; eta hortik aurrera banaketa nahiko orekatua da: 26-35 tartean %22,2a dago; 36 eta 45 urte tartean %22,5a; 46-55 tartean %25,1a; eta 55 urtetik gorakoen tartean %24,2a.

Taula 36. Langabezia prestazioak adin tarteen arabera - 2022

Adin tartea	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
<25	2.904	6,0	7.291.538	4,3	2.511
26-35	10.730	22,2	34.887.403	20,4	3.251
36-45	10.866	22,5	38.809.447	22,7	3.572
46-55	12.111	25,1	39.559.854	23,1	3.266
> 55	11.669	24,2	50.601.732	29,6	4.336
Guztira	48.280	100,00	171.149.974	100,0	3.545

Zenbatekoak eurotan

Langabezia prestazioaren zenbatekoari begiratuta, oreka oraindik ere handiagoa da. Lehen tarteak izan ezik (%4,3), beste guztiak antzeko balioak dituzte:

- 26-35 tarteak zenbateko osoaren %20,4 metatzen du.
- 36-45 tarteak zenbateko osoaren %22,7 metatzen du.
- 46-55 tarteak zenbateko osoaren %23,1 metatzen du.
- 55 urtetik gorakoek zenbateko osoaren %29,6 metatzen dute.

5.4. Langabezia prestazioa LGSren tarteetan arabera

Jasotako soldata tarteetan banatzerakoan Lanbide arteko Gutxieneko Soldata (LGS) erabili da. Bere balio 2022. urtean 14.000 eurokoa da.

Jasotzaile kopuruari dagokionez, gehiengo nagusia (%88,6) lehen tarteetan dago; horrek esan nahi du 7.000 euro baino gutxiago jaso dituztela. LGSren 0,5 eta 1 bitartean 4.781 pertsonak jaso dute (%9,8); eta hortik aurrera, hau da, 14.000 euro edo gehiago jasotzaile guztien %1,7k jasotzen du.

Taula 37. Langabezia prestazioak LGSren tarteetan arabera – 2022

Errenta tarteak (LGS)*	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
0 - 0,5	43.134	88,6	110.949.276	64,4	2.572
0,5 - 1	4.781	9,8	47.194.831	27,4	9.871
1 - 1,5	662	1,4	10.866.506	6,3	16.415
>1,5	125	0,3	3.319.861	1,9	26.559
Guztira	48.702	100,00	172.330.475	100,0	3.538

Zenbatekoak eurotan

(*) 2022an Lanbide arteko Gutxieneko Soldata 14.000 eurokoa da

Langabezia prestazioaren zenbatekoaren %64,4a lehen tarteetakoak jaso dute, eta batez bestekoa 2.572 eurokoa da. LGSren 0,5 eta 1 bitartean jasotzen dutenak, guztiaren %27,4 metatzen dute (47,2 milioi euro; batez beste 9.871 euro). Hurrengo tarteetako jasotzaileak (LGS 1-1,5) aldiz zenbateko osoaren %6,3 jasotzen dute. Eta azken tarteetan portzentajea nabarmen jaisten da: LGS 1,5 aldiz baino gehiago jasotzen dutenena %1,9 da.

6 GIZARTE AURREIKUSPENEN ERRESKATEAK

Atal honetan Gipuzkoako biztanleak Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitate (BGAE), Pentsio Plan (PP), Mutualitate eta antzeko sistemetatik egindako erreskateen zenbatekoak aztertuko dira.

Sistema horietara egindako kontribuzioak eta ekarpenak ekitaldi horretako PFEZren oinarri ezargarria murrizten dute. Hurrengo urteetan, zenbatekoak erreskatatzen direnean, PFEZn integratzen dira, lan etekin bezala. Erreskateak bi motatakoak izan daitezke:

- Errenta moduan egindakoak: urtero zenbateko bat jasotzen da, eta orduan erreskatatutako zenbatekoa osoa PFEZren oinarri ezargarri orokorrean integratzen da, lan etekin bezala.
- Kapital moduan egindakoak: zenbateko guztia batera erreskatatzen da, eta orduan erreskatatutako zenbatekoaren %60a PFEZren oinarri ezargarrian integratzen da, lan etekin bezala.

6.1. Errenta moduan egindako erreskateak

2022. urtean errenta moduan 18.513 pertsonak egin dituzte erreskateak, iaz baino %2,8 gehiagok. Erreskatatutako zenbatekoa osoa (99 milioi euro) %3,7 igo da 2021arekin alderatuta. Pertsonako batez bestekoa 5.370 euro izan dira.

Taula 38. Errenta moduan egindako erreskateen bilakaera

	Kopurua	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Batez beste	Bar. %
2013	27.292	4,4	192.988.985	8,6	7.071	4,0
2014 (*)	21.976	-19,5	127.571.292	-33,9	5.805	-17,9
2015 (*)	16.434	-25,2	95.025.688	-25,5	5.782	-0,4
2016 (*)	15.875	-3,4	103.236.748	8,6	6.503	12,5
2017 (*)	16.351	3,0	98.285.381	-4,8	6.011	-7,6
2018 (*)	17.361	6,2	109.382.934	11,3	6.300	4,8
2019 (*)	18.119	4,4	104.097.668	-4,8	5.745	-8,8
2020 (*)	18.004	-0,6	100.124.500	-3,8	5.561	-3,2
2021 (*)	18.015	0,1	95.892.213	-4,2	5.323	-4,3
2022 (*)	18.513	2,8	99.420.020	3,7	5.370	0,9
2013/2022		-32,2		-48,5		-24,1

Zenbatekoak eurotan

(*) 2014tik aurrera hobekuntzak eman dira 190 ereduak ematen duen informazioan. Lehenago B gakoak (pentsioak eta gizarte aurreikuspeneko erreskateak) bi azpigako besterik ez zituen. 2014tik aurrera 10 azpigako baino gehiagotan banatzen da, eta horrela etekinak zehaztasun askoz gehiagorekin sailkatzen dira. Aldaketa horien

eraginez, lan kontingentzia jakin batzuk estaltzera jarduten diren zenbait entitateek, lehen B02 (gizarte aurreikuspeneko erreskateak) bezala aitortzen zituzten kontzeptu batzuk, orain beste azpigako batzuekin aitortzen dituzte, eta pentsio bezala sailkatzen dira.


Taularen oineko oharrean azaltzen den bezala, 190 ereduan sartu diren aldaketek eragin handia izan dute datuetan. 2014. urtetik aurrera, 190 eredu berria aplikatzen dugula kontuan izanik, deritzogu entitate aitortzaileak etekinak kontzeptu espezifikoan aitortzen dituztela eta ez kontzeptu orokorrean.

6.1.1. Errenta moduan egindako erreskateak sexuaren arabera

Beste atal batzuetan aipatu dugun bezala, jasotzaileei buruzko informazioa eskuratzerakoan, zenbait aitortpenetan datu batzuk jaso gabe daudela konturatu gara; esaterako, pertsonen sexua. Horrela, 2022. urtean erreskateak errenta moduan egiten dituzten 18.513 pertsonetatik, ez dugu ezagutzen 353ren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Errenta moduan erreskateak egiten dituzten guztietatik, %42,8 emakumezkoak dira, eta beste %57,2 gizonezkoak. Baina zenbatekoari begiratzten badiogu, emakumezkoek guztiaren %38,9 erreskatatzen dute, eta gizonezkoek %61,1.

Grafikoa 12 – Errenta moduan egindako erreskateen banaketa sexuaren arabera -2022



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezkoen erreskatearen batez bestekoa 2022. urtean 4.588 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 5.570 eurokoa.

Gizarte aurreikuspeneko sistemataraz egiten diren kontribuzio eta ekarpen asko lan kontratuari lotuta daude. Horregatik, emakumezkoen presentzia lan merkatuan handitu den neurrian, erreskateetan duten parte-hartzea ere handitu eginda. Horrela, azken hamar urteetan errenta moduan erreskateak egiten dituzten emakume kopurua 10.648tik 7.769ra (-%27,0) pasa da. Gizonezkoak, berriz, 15.463tik 10.391era pasa dira (-%32,8).

Taula 39. Errenta moduan erreskateak egiten dituzten pertsona kopuruaren bilakaera sexuaren arabera

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2013	10.648		15.463	
2014	9.244	-13,2	12.019	-22,3
2015	6.954	-24,8	8.997	-25,1
2016	6.706	-3,6	8.725	-3,0
2017	6.815	1,6	9.361	7,3
2018	7.359	8,0	9.856	5,3
2019	7.707	4,7	10.224	3,7
2020	7.675	-0,4	10.096	-1,3
2021	7.709	0,4	10.038	-0,6
2022	7.769	0,8	10.391	3,5
2013/2022		-27,0		-32,8

Kopuruaren antzeko bilakaera izan du erreskatatutako zenbatekoak. Horrela, 2013an emakumezkoek erreskatatutako zenbatekoa 60 milioi euro izan ziren bitartean, 2022an 36 milioi euro izan dira; hau da, %40,5 gutxiago.

Taula 40. Errenta moduan egindako erreskateen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2013	59.949.583		125.422.345	
2014	42.984.031	-28,3	81.146.999	-35,3
2015	35.646.621	-17,1	57.882.087	-28,7
2016	34.141.762	-4,2	67.570.153	16,7
2017	33.383.960	-2,2	64.002.666	-5,3
2018	37.130.289	11,2	71.631.590	11,9
2019	37.812.722	1,8	65.576.119	-8,5
2020	37.034.395	-2,1	62.156.777	-5,2
2021	37.109.451	0,2	57.892.399	-6,9
2022	35.646.621	-3,9	57.882.087	0,0
2013/2022		-40,5		-53,9

Gizonezkoek egindako erreskateak, berriz, %53,9 jaitsi dira hamar urte hauetan: 125 milioi eurotik 58 milioi eurora.

6.1.2. Errenta moduan egindako erreskateak adinaren arabera

Sexuarekin gertatzen zitzaigun bezala, hemen ere zenbait hutsune ditugu pertsonen adina lortzerakoan. Horrela, 2022. urteko 18.513 pertsonetatik ez dugu ezagutzen 107ren adina. Horregatik, adin tarteen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

2022. urtean 25 urtetik beherako pertsona oso gutxi (192; guztiaren %1,0) egin dituzte erreskateak. Adinean aurrera joan ahala, kopurua handitu egiten da: 26-35 urte bitartekoak %4,5 dira; 36-55 bitartekoak %12,1; 56-65 bitartekoak %20,3; 66-75 bitartekoak %36,4; eta, azkenik, errenta moduan erreskateak egiten dituzten guztietatik, %25,6k 75 urte baino gehiago dute.

**Taula 41. Errenta moduan egindako erreskateak adin tarteen arabera
- 2022**

Adin tartea	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
<25	192	1,0	532.278	0,5	2.772
26-35	828	4,5	4.394.966	4,4	5.308
36-55	2.228	12,1	8.209.946	8,3	3.685
56-65	3.732	20,3	24.234.792	24,5	6.494
66-75	6.708	36,4	31.578.044	31,9	4.708
>75	4.718	25,6	30.146.164	30,4	6.390
Guztira	18.406	100,00	99.096.189	100,0	5.384

Zenbatekoak eurotan

Erreskatearen zenbatekoari begiratuta, antzeko ondorioak ateratzen dira: gazteenak, 55 urte baino gutxiago dutenek, zenbateko osoaren %13,2a erreskatatzen dute; 56-65 bitartekoak %24,5; 66-75 bitartekoak %31,9; eta, zaharrenek, 75 urte baino gehiagokoak, %30,4.

Datuak horrela izanda, erreskatatutako batez bestekoaren zenbatekoa nabarmen handitzen da adinean aurrera goazen neurrian. Horrela, azken hiru tartek 4.708 eurotik gorako batez besteko zenbatekoak dituzte.

6.1.3. Errenta moduan egindako erreskateak tarteen arabera

2022an erreskatatutako zenbatekoari begiratuta, %53,4k 1.000 euro eta 5.000 euro bitarteko errenta jaso du. Ondoren datoz 0 eta 500 euro bitartean jaso dutenak (%14,3), eta gero 5.000 eta 10.000 euro bitartekoak (%13,6). 10.000 euro eta 20.000 euro bitartekoak kopuru osoaren %8,8 dira (1.627 pertsona); beste 1.055 pertsonak (%5,7) 500 euro eta 1.000 euro bitartean erreskatatu dute. Tarte handienetan, berriz, 572 pertsonak (guztien %3,1) 20.000–50.000 euro bitarteko zenbatekoa erreskatatu du; eta 50.000 euro baino gehiago 203 pertsonak erreskatatu dute.

Taula 42. Errenta moduko erreskateak tarteen arabera – 2022

Tartea (eurotan)	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
0 - 500	2.655	14,3	520.325	0,5	196
500 - 1.000	1.055	5,7	781.333	0,8	741
1.000 - 5.000	9.890	53,4	24.865.315	25,0	2.514
5.000 - 10.000	2.511	13,6	17.814.813	17,9	7.095
10.000 - 20.000	1.627	8,8	22.548.086	22,7	13.859
20.000 - 50.000	572	3,1	16.656.737	16,8	29.120
>50.000	203	1,1	16.233.411	16,3	79.968
Guztira	18.513	100,00	99.420.020	100,00	5.370

Zenbatekoak eurotan

Erreskatatutako zenbatekoari dagokionez, tarte altuen pisua handiago da:

- 1.000–5.000 tartean daudenak zenbateko osoaren %25,0 erreskatatzen dute (25 milioi euro).
- 10.000-20.000 tartekoek erreskatatzen dutenak: 23 milioi euro (%22,7).
- 5.000-10.000 tartean daudenak %17,9 (18 milioi euro).
- 20.000-50.000 tartekoek 17 milioi euro erreskatatu dituzte (%16,8).
- 50.000 euro baino gehiago erreskatatzen dutenak (16 milioi euro), zenbateko osoaren %16,3 dira.
- Beheko bi tartekak oso pisu txikia dute: 500 euro baino gutxiagokoak %0,5, eta 500-1.000 euro bitartekoak %0,8.

6.1.4. Errenta moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak


2022an errenta moduan erreskateak egin dituzten 18.513 pertsonetatik 14.318k (%77,3) pentsio publikoa ere kobratzen dute; beste 4.195 pertsonak (%22,7) ez dute pentsio publikoa gizarte aurreikuspeneko erreskatearekin bateratzen.

Nolabait ulertu daiteke, pentsio publikoa eta errenta moduan egindako erreskatea bat egiten dutenek, urtero horrela egingo dutela. Hau da, gizarte aurreikuspeneko erreskatea bere bizitzan zehar izango duen pentsio publikoaren osagarri bezala erabiltzen dutela.

Erreskatatutako 99 milioi eurotik, 69 milioi (%69,2) pentsio publikoarekin bateragarri egin dutenak metatzen dute. Eta beste 31 milioi euro (%30,8) erreskatatu dituzte pentsio publikorik jasotzen ez dutenek.

Batez beste erreskatea 4.805 eurokoa da pentsio publikoa ere jasotzen dutenentzat, eta 7.301 eurokoa besteentzat.


Grafikoa 13 – Errenta moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak 2022



Bestalde, pentsio publikoa kobratzen duten horiek 28.095 euroko batez besteko pentsioa jaso dute. Beraz, 2022an guztira 32.900 euro jaso dute, %85,4a pentsio publikoetatik eta beste %14,6 gizarte aurreikuspeneko entitateetatik errenta moduan egindako erreskateetatik.

Erreskatatutako batez besteko zenbatekoa (4.805 euro) pentsio publikoaren batez bestekoaren (28.095 euro) %17,1 da.

Grafikoa 14 – Errenta moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak - 2022



6.2. Kapital moduan egindako erreskateak

2022. urtean kapital moduan 8.836 pertsonak egin dituzte erreskateak, iaz baino %4,4 gehiagok. Erreskatatutako zenbatekoa gutxiago igo da (+%1,2), eta 152 milioi eurotara iritsi da. Pertsonako batez bestekoa 17.255 euro izan dira.

Bilakaera negatibo eman da urte guztietan, 2015, 2018 eta 2022 izan ezik.

Azken hamar urteetan kapital moduan erreskateak egin dituzten pertsona kopurua %37,4 jaitsi da: 14.120tik 8.836ra. 2015, 2018 eta 2022 urteek kenduta (+%9,4, +%1,4 eta +%4,4), beste guztietan jaitsierak eman dira.

Taula 43. Kapital moduan egindako erreskateen bilakaera

	Kopurua	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Batez beste	Bar. %
2013	14.120		246.638.361		17.467	
2014	13.714	-2,9	206.549.120	-16,3	15.061	-13,8
2015	15.000	9,4	225.034.282	8,9	15.002	-0,4
2016	12.431	-17,1	212.180.722	-5,7	17.069	13,8
2017	11.862	-4,6	198.313.718	-6,5	16.718	-2,1
2018	12.024	1,4	189.816.980	-4,3	15.787	-5,6
2019	10.506	-12,6	185.353.076	-2,4	17.643	11,8
2020	9.393	-10,6	182.095.334	-1,8	19.386	9,9
2021	8.460	-9,9	150.634.699	-17,3	17.806	-8,2
2022	8.836	4,4	152.468.456	1,2	17.255	-3,1
2013/2022		-37,4		-38,2		-1,2

Zenbatekoak eurotan

Erreskatatutako zenbatekoei dagokionez, %38,2 jaitsi dira 2013. urtetik: 247 milioi eurotik 152 milioi eurora. Mailarik handien 2013. urtean lortu zen: 247 milioi euro.


Pertsonako batez besteko erreskatea %1,2 jaitsi da azken hamar urteetan: 17.467 eurotik 17.255 eurora.

6.2.1. Kapital moduan egindako erreskateak sexuaren arabera

Erreskateak egiten dituzten pertsonen zenbait datu eskuratzerakoan hutsuneak ditugu; esaterako, sexua lortzerakoan. Horrela, 2022. urteko 8.836 pertsonetatik ez dugu ezagutzen 73n sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Kapital moduan erreskateak egiten dituzten guztietatik, %44,2 emakumezkoak dira, eta beste %55,8 gizonezkoak. Baina zenbatekoari begiratzten badiogu, emakumezkoek guztiaren %39,1 erreskatatzen dute (59 milioi euro), eta gizonezkoek %60,9 (92 milioi euro).

Grafikoa 15 – Kapital moduan egindako erreskateen banaketa sexuaren arabera -2022



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezkoen erreskatearen batez bestekoa 2022. urtean 15.354 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 18.906 eurokoa.

Azken hamar urteetan kapital moduan erreskateak egiten dituzten emakume kopurua 5.197tik 3.871ra jaitsi da (-%25,5). Gizonezkoak, berriz, 8.526tik 4.892ra pasa dira (-%42,6).

Taula 44. Kapital moduan erreskateak egiten dituzten pertsona kopuruaren bilakaera sexuaren arabera

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2013	5.197		8.526	
2014	5.427	4,4	8.003	-6,1
2015	6.334	16,7	8.408	5,1
2016	5.186	-18,1	7.058	-16,1
2017	4.887	-5,8	6.848	-3,0
2018	5.047	3,3	6.927	1,2
2019	4.426	-12,3	5.976	-13,7
2020	3.965	-10,4	5.310	-11,1
2021	3.713	-6,4	4.672	-12,0
2022	3.871	4,3	4.892	4,7
2013/2022		-25,5		-42,6

Kopuruaren antzeko bilakaera izan du erreskatatutako zenbatekoak, baina areagotuta. Horrela, 2013an emakumezkoek erreskatatutako zenbatekoa 79 milioi euro izan ziren bitartean, 2022an 59 milioi euro izan dira; hau da, %24,8 gutxiago.

Taula 45. Kapital moduan egindako erreskateen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2013	78.989.960		163.928.931	
2014	74.936.206	-5,1	129.739.272	-20,9
2015	83.497.209	11,4	139.719.531	7,7
2016	73.264.430	-12,3	137.768.065	-1,4
2017	69.351.533	-5,3	128.109.863	-7,0
2018	72.677.961	4,8	116.550.078	-9,0
2019	68.169.303	-6,2	116.278.853	-0,2
2020	65.941.514	-3,3	114.314.195	-1,7
2021	59.304.411	-10,1	90.670.695	-20,7
2022	59.437.098	0,2	92.485.818	2,0
2013/2022		-24,8		-43,6

Gizonezkoek egindako erreskateak, berriz, %43,6 jaitsi dira hamar urte hauetan: 164 milioi eurotik (epealdiko handiena) 92 milioi eurora.

6.2.2. Kapital moduan egindako erreskateak adinaren arabera

Sexuarekin gertatzen zitzaigun bezala, hemen ere zenbait hutsune ditugu pertsonen adina lortzerakoan. Horrela, 2022. urteko 8.836 pertsonetatik ez dugu ezagutzen 10en adina. Horregatik, adin tarteen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

2022. urtean 25 urtetik beherako pertsona oso gutxi (113; guztiaren %1,3) egin dituzte erreskateak kapital moduan, eta 26-35 bitartekoak 254 dira (%2,9). Erdiko bi tartekak dira pertsona gehien metatzen dituztenak: 36-55 bitartekoak %25,4 eta 56-65 bitartekoak %42,8. Ondoren, adinean aurrera joan ahala gutxitu egiten dira: 66-75 bitartekoak %21,1, eta, azkenik, kapital moduan erreskateak egiten dituzten guztietatik, %6,5ek 75 urte baino gehiago dute.

**Taula 46. Kapital moduan egindako erreskateak adin tarteen arabera
- 2022**

Adin tartea	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
<25	113	1,3	1.035.139	0,7	9.161
26-35	254	2,9	1.906.491	1,3	7.506
36-55	2.240	25,4	18.369.173	12,1	8.201
56-65	3.778	42,8	79.670.246	52,3	21.088
66-75	1.866	21,1	41.394.316	27,2	22.183
>75	575	6,5	9.980.091	6,6	17.357
Guztira	8.826	100,00	152.355.456	100,0	17.262

Zenbatekoak eurotan

Erreskatearen zenbatekoari begiratuta, antzeko ondorioak ateratzen dira: gazteenak, 35 urte baino gutxiago dutenek, zenbateko osoaren %2,0a erreskatatzen dute; 36-55 bitartekoak %12,1; 56-65 bitartekoak guztiaren erdia baino gehiago (%52,3); 66-75 bitartekoak %27,2; eta, zaharrenek, 75 urte baino gehiagokoak, %6,6.

Datuak horrela izanda, kapital moduan erreskatatutako batez bestekoaren zenbatekorik altuena 66-75 urtekoek dute: 22.183 euro.

6.2.3. Kapital moduan egindako erreskateak tarteen arabera

2022an kapital moduan erreskatatutako zenbatekoari begiratuta, %24,6k 1.000 eta 5.000 euro bitartean jaso ditu. Ondoren datoz 20.000 eta 50.000 euro bitartean jaso dutenak (%18,1), gero 10.000 – 20.000 euro bitartekoak (%17,1), eta 5.000–10.000 euro bitarteko zenbatekoa erreskatatu dutenak %16,0 dira.

Taula 47. Kapital moduan egindako erreskateak tarteen arabera – 2022

Tartea (eurotan)	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
0 - 500	787	8,9	129.665	0,1	165
500 - 1.000	661	7,5	483.682	0,3	732
1.000 - 5.000	2.178	24,6	5.977.220	3,9	2.744
5.000 - 10.000	1.413	16,0	10.553.324	6,9	7.469
10.000 - 20.000	1.511	17,1	21.683.462	14,2	14.350
20.000 - 50.000	1.595	18,1	51.857.947	34,0	32.513
>50.000	691	7,8	61.783.156	40,5	89.411
Guztira	8.836	100,00	152.468.456	100,00	17.255

Zenbatekoak eurotan

500 euro eta 1.000 euro bitartean erreskatatu dutenak, kopuru osoaren %7,5 dira (661 pertsona); zenbateko gutxien erreskatatu dutenak (500 euro baino gutxiago) beste 787 pertsona dira (%8,9). Tarte handienean (50.000 euro baino gehiago), berriz, 691 pertsona daude, guztien %7,8.

Erreskatatutako zenbatekoari dagokionez, tarte altuen pisua nabarmen handiago da:

- 50.000 euro baino gehiago erreskatatzen dutenak (62 milioi euro), zenbateko osoaren %40,5 dira.
- 20.000-50.000 tartean daudenak %34,0 (52 milioi euro).
- 10.000–20.000 tartean daudenak zenbateko osoaren %14,2 erreskatatzen dute (22 milioi euro).
- 5.000-10.000 tartekoek 11 milioi euro erreskatatu dituzte (%6,9).
- 1.000-5.000 tartekoak: 6 milioi euro (%3,9).

- Beheko bi tarteak oso pisu txikia dute: 500 euro baino gutxiagokoak %0,1, eta 500-1.000 euro bitartekoak %0,3.

6.2.4. Kapital moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak


2022an kapital moduan erreskateak egin dituzten 8.836 pertsonetatik 5.275ek (%59,7) pentsio publikoa ere kobratzen dute; beste 3.561 pertsonak (%40,3) ez dute pentsio publikoa gizarte aurreikuspeneko erreskatearekin bateratzen.

Pentsio publikoa eta kapital moduan egindako erreskatea bat egiten dutenek, ez dute erabiltzen gizarte aurreikuspeneko erreskatea bere bizitzan zehar izango duen pentsio publikoaren osagarri bezala. Baizik eta urte zehatz batean egindako aukeraketa bat da, hurrengoetan errepikatuko ez dena.

Guztira erreskatatutako 152 milioi eurotik, 119 milioi (%78,2) pentsio publikoarekin bateragarri egin dutenak metatzen dute. Eta beste 33 milioi euro (%21,8) erreskatatu dituzte pentsio publikorik jasotzen ez dutenek.


Batez beste erreskatea 22.611 eurokoa da pentsio publikoa ere jasotzen dutenentzat, eta 9.323 eurokoa besteentzat.

Grafikoa 16 – Kapital moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak - 2022



Bestalde, pentsio publikoa kobratzen duten horiek 22.758 euroko batez besteko pentsioa jaso dute. Beraz, gehiago jasotzen dute pentsio publikoetatik (23.856 euro) gizarte aurreikuspeneko entitateetako erreskateetatik baino.

Grafikoa 17 – Kapital moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak 2022



6.3. Errenta moduan eta kapital moduan egindako erreskateak

Gizarte aurreikuspeneko erreskateak egiteko modua berdintsu mantendu da azken hamar urteetan: 2013. urtean erreskate guztien %65,9a errenta moduan egiten zen, eta 2022an, aldiz, %67,7a egiten da, hau da, 1,8 puntu gehiago.

Era berean, kapital moduan egindako erreskateak 14.120 izatetik (%34,1) 8.836 izatera (%32,3) pasa dira 2013tik 2022ra.

Taula 48. Errenta eta kapital moduan egindako erreskate kopuruaren bilakaera

	Errenta moduan		Kapital moduan		Guztira			
	Kopurua	Bar. %	Kopurua	Bar. %	Kopurua	Bar. %	% errenta	% kapital
2013	27.292		14.120		41.412		65,9	34,1
2014	21.976	-19,5	13.714	-2,9	35.690	-13,8	61,6	38,4
2015	16.434	-25,2	15.000	9,4	31.434	-11,9	52,3	47,7
2016	15.875	-3,4	12.431	-17,1	28.306	-10,0	56,1	43,9
2017	16.351	3,0	11.862	-4,6	28.213	-0,3	58,0	42,0
2018	17.361	6,2	12.024	1,4	29.385	4,2	59,1	40,9
2019	18.119	4,4	10.506	-12,6	28.625	-2,6	63,3	36,7
2020	18.004	-0,6	9.393	-10,6	27.397	-4,3	65,7	34,3
2021	18.015	0,1	8.460	-9,9	26.475	-3,4	68,0	32,0
2022	18.513	2,8	8.836	4,4	27.349	3,3	67,7	32,3
2013/2022		-32,2		-37,4		-34,0		

Zenbatekoa begiratuta ere, erreskateak egiteko modua berdintsu mantendu da:

- 2013an erreskatatutako zenbateko osoaren %43,9a errenta moduan egiten zen, eta beste %56,1a kapital moduan; 440 milioi eurotik 193 milioi euro errenta bezala eta 247 milioi euro kapital moduan.
- 2022an errenta moduak egindako erreskateak 99 milioi euro izan dira eta kapital moduan egindakoak 152 milioi euro; zenbateko osoaren %39,5 eta %60,5, hurrenez hurren.

2013-2022 epealdian erreskate guztiaren erdia baino gehiago kapital moduan egiten da.

Taula 49. Errenta eta kapital moduan egindako erreskateen zenbatekoen bilakaera

	Errenta moduan		Kapital moduan		Guztira			
	Zenbatekoa	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	% errenta	% kapital
2013	192.988.985		246.638.361		439.627.346		43,9	56,1
2014	127.571.292	-33,9	206.549.120	-16,3	334.120.412	-24,0	38,2	61,8
2015	95.025.688	-25,5	225.034.282	8,9	320.059.970	-4,2	29,7	70,3
2016	103.236.748	8,6	212.180.722	-5,7	315.417.470	-1,5	32,7	67,3
2017	98.285.381	-4,8	198.313.718	-6,5	296.599.099	-6,0	33,1	66,9
2018	109.382.934	11,3	189.816.980	-4,3	299.199.914	0,9	36,6	63,4
2019	104.097.668	-4,8	185.353.076	-2,4	289.450.744	-3,3	36,0	64,0
2020	100.124.500	-3,8	182.095.334	-1,8	282.219.834	-2,5	35,5	64,5
2021	95.892.213	-4,2	150.634.699	-17,3	246.526.912	-12,6	38,9	61,1
2022	99.420.020	3,7	152.468.456	1,2	251.888.476	2,2	39,5	60,5
2013/2022		-48,5		-38,2		-42,7		

Zenbatekoak eurotan